


Hernaniko euskararen analisi fonologiko bat

Andoni Rey Ortiz

Itzulpengintza eta Interpretazioa

2024-2025

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Tutorea:

Gorka Elordieta Alcibar

Hizkuntzalaritza eta Euskal ikasketak

Laburpena

Hernaniko euskararen aberastasunaz kezkatuta, bertako hizkeraren transmisioa ahuldu edo aldatu egin ote den ikertu nahi izan dugu lan honetan. Izan ere, umeek geroz eta euskara gutxiago erabiltzen dute, eta estandarragoa. Alabaina, umeak ez direnez ikerketa-subjektu egokia, gazteen eta adinekoen hizkera aztertu dugu, horri beste bi aldagai gehituta: tokia (herrian bi bailara baitaude) eta generoa. Hizkera hizkuntzalaritzako alor bakarretik aztertu dugu lan honetan, fonologiatik hain zuzen. Hortaz, lan dialektologiko honetan Hernaniko fonologia aztertu eta harentzako arauak proposatuko ditugu, bertako hizkeraren ezaugarri hauek ulertzea onuragarria iruditzen zaigulako a) ahozko jardunaren nondik norakoak ulertzeko, b) bertako hizkera ulertzen zein estandarra irakasten lagundu dezakeelako, eta c) euskararen aberastasuna euskalkietatik osatzeko, batez ere ahozko jardunari dagokionean.

Honela antolatu dugu lana: laburpen honen ostean, Garapen Jasangarrirako Helburuekin lotu dugu ikerlana. Ondoren, hitzaurrean, gaia hautatzeko interesa azaldu eta ikerketa-esparruan aurretik argitaratutako lanen errepasoa egin dugu. Jarraian, Hernaniko egoera linguistiko eta identitarioa aurkeztu dugu, berebizikoa delako lanaren nondik norakoak ulertzeko. Horren ostean, lanaren helburuak aurkeztu eta metodologia azaldu dugu, hainbat ataletan zatituta: lehendabizi, ikerketarekin zerikusi duen metodologia azaldu dugu, hain zuzen, hiztun-profilen hautaketa, grabazioak egiteko metodoa, hiztunen ekoizpena fonologikoki aztertzeiko erabilitako metodoa, prozesuak deskribatzeko erabilitakoa. Jarraian, mamiarekin zerikusi handiago duen metodologia aurkeztu dugu, hau da, arauen nomenklatura, terminoen glosarioa, adierazpen fonologikoen gaineko azalpena eta herriko hizkerako fonemak eta alofonoak.

Hori guztia eta gero, prozesuak deskribatuz erauzitako arau erabat fonologikoak azaldu ditugu, erabilera-maiztasunaren arabera ordenatuta. Arau bakoitza honela egituratu dugu: izen sintetiko bat, formula fonologikoa, azalpen laburra zein argitu beharrekoak eta adibideak.

Ondorioen atalean, lanaren mugez mintzatu gara lehenik, karaktere-mugarengatik atal batzuk eranskinetan sartu behar izan ditugulako, hots, arau morfosintaktiko-fonologikoak eta hedakuntza mugatuko arauak. Jarraian, arauen gaineko hausnarketak eta ondorioak aurkeztu ditugu, bi ikuspegitan zentratuta: [a] ↔ [ɐ] bokal-alternantzian eta fonologia

naturalean. Beste ondorio batzuk ere jaso ditugu gero, esaterako, gazteen eta adinekoen arteko hizkeraren aldeak, eta hiztun guztien hizkeran dauden beste ezaugarri fonologiko batzuk ere. Azkenik, gerora begira jorratzeko lan-ildo batzuk proposatu ditugu, bai guk geuk ikertu eta lanean aurkeztu ez ditugunak, bai ikertzea interesgarria liratekeen beste gai batzuk.

Azken orrialdeetarako utzi ditugu erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak, zeinetan grabazioen transkripzioak gehitu ditugu, aipatutako beste araeuz gain.

GJHei buruzko hausnarketa

Lan honetan Hernaniko hizkerak fonologikoki aztertuko ditugu, orain arte hizkera horretan apenas erabili den metodologia batez. Azken helburua herriko hizkerak linguistikoki ulertzea da. Hizkuntza-aldaera guzti-guztiak bezalaxe, euskalkiak erabilera esparru propioa du, eta ikergai duguna garrantzi bizikoa da herriko identitatea mantentzeko eta, horrenbestez, herriko komunitatearen osasuna bermatzeko.

Hori horrela, lan hau bete-betean dator EHUK 2019an Garapen Jasangarrirako Helburuetan txertatutako helburu berriarekin, 18. Helburuarekin hain zuzen: *Hizkuntza eta Kultur Aniztasuna*.

Izan ere, «[h]izkuntzaren alorrean, benetako heziketa inklusiboa lortzeko beharrezkoa izango da kultura eta hizkuntza propioen erabilera bultzatuko dituzten ereduak garatzea.» (18. Helburua 2030 agendan—*Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra*—UPV/EHU, d. g.). Hizkeraren gaineko kontzientzia izateko, lehenik hizkera bera ulertu beharra dago, eta lehen urrats hori emateko egin dugu lan hau. Herriko hizkerako arau fonologikoak ulertuta, nabarmen errazagoa baita herriko hiztunek euskara estandarra (*batua*) zuzen hitz egiteko dituzten zailtasunei aurre egitea. Hizkuntza-politika eraginkor eta inklusiboekin batera, euskalkiek euskara estandarraren aberastasuna hobetu lezakete, eta egunerokoan euskalkia erabiltzen duten hiztunek zailtasun gutxiago eduki litzakete euskara estandarra zuzen erabiltzeko.

18. Helburua betetzeaz gain, aipatutako hizkuntza politikak euskaldunen arteko ezberdinkeria eta bazterkeria gutxitu lezake (10. Helburua: Desberdintasunak murriztea), eta lan hau horretarako zutarri sendo bat dela uste dugu. Historikoki, euskaldunen artean

gatazka linguistiko ugari egon da euskalki bat beste bat baino hobea dela pentsatzearen ondorioz: Zuazoren *Euskararen sendabelarrak* (2000) liburua irakurri besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Euskara estandarra irakasten hasi zenetik, euskal hizkeren arteko mespretxua euskalkitik estandarrerako izan dela sinisteko zantzu nabariak daude, eta euskalkiak exotizatu direla ere. Horrekin batera, orobat euskararen aberastasuna gutxitu dela diote zenbait egilek (Sarasola, 1998).

Aipatutako azken bi lanek azaleratutako kezkei erantzuteko saiakera bat da lan hau, hizkuntza politika egoki batekin batera, GJHko 10. eta 18. Helburuak sustatzeko oinarri izan nahi dituenak.

Aurkibidea

1. Hitzaurrea.....	1
1.1 Sarrera.....	1
1.2. Hernaniko hizkerez.....	2
1.3 Helburuak.....	4
1.4. Metodologia.....	4
2. Arau erabat fonologikoak.....	11
2.1. Ezabaketak.....	12
2.2. Asimilazioak.....	19
2.3. Disimilazioak.....	22
2.4. Ahultzeak.....	24
2.5. Indartzeak.....	27
2.6. Epentesiak.....	28
3. Ondorioak.....	29
3.1. Lanaren mugak.....	29
3.2. Arauen gainean esatekoak.....	29
3.3. Gerora begirakoak.....	32
4. Bibliografia.....	33
5. Eranskinak.....	36
I. eranskina: Transkripzioak.....	36
II. eranskina: Arau morfosintaktiko-fonologikoak.....	59
III. eranskina: Hedakuntza mugatuko arauak.....	66

1. Hitzaurrea

1.1 Sarrera

Gaztetatik pentsatu izan dut eraldaketak txikitik handira egin behar direla, handia zati txiki askoz osatua delakoan. Gainera, hizkuntza-eskubideak oso presente izan ditut ordutik. Bi ikuspegiak jostearen ondorioz, uste dut euskaraz bizitzeko eskubidea defendatzeko euskalkiak defendatzen hasi behar dugula, ez dezagun euskaldunon artean elkarren hizkera-eskubidea zapaldu. 1968an estandarra sortu aurretik, euskaldunen arteko hizkuntza-liskarrak hizkeren artekoak ziren; baina nik ezagutu dudan errealitate soziolinguistikoa, euskalkien eta estandarraren artean dago liskarra. Eskolan liskar hori sustatu zigutelako oroitzapenak dauzkat, kasu honetan, irakasleak estandarraren alde zeudela —euskalkiko hitzak *zuzentzen* zizkigutela—. Horrek euskalkidun gazte askoren erreakzioa ekarri du, estandarraren kontrakoa, eta adineko euskalkidun dezentek euskaraz *txapurreatzen* (sic.) besterik ez dakitela esaten dute. Nire ustez, hau hizkuntza-eskubideen urraketa nabaria eta egoera soziolinguistiko tamalgarria da.

Moreno Cabrerak (2024) dio dialektoak direla hizkuntza naturalak, eta estandarra modu hertsagarrian inposatutako aldaera bat besterik ez dela. Hortaz, eta hala dio Zuazok (2000) ere, euskalkietatik aberastu behar genuke estandarra, haietan baitago hizkuntzaren sena, batez ere ahozko eta lagunarteko jardunari dagokionean.

Gainera, Hernaniko hizkera aztertzeke gogoan umeen hizkera estandarizatzen ari den susmotik sortu zait. Izan ere, herriko umeek geroz eta hizkera estandarragoa darabilte egunerokoan. Ez dugu honen inguruko datu kuantitatiborik jaso eta ez da gure xedea, ikerketa hau hasteko motibazioa baizik.

Lanaren nondik norakoetan murgildu aurretik, hartu dezagun ikergaiaren ikuspegi orokorrago bat. Euskal dialektologiak aspalditik piztu du zale eta aditu askoren jakin-mina: idazle klasikoek gaia jorratu zuten, Bonaparte printzeak lehen azterketa linguistiko sakona argitaratu zuen eta, gaur egun, Koldo Zuazo da erreferente.

Dialektoak linguistikoki aztertzen dituen lan mordoak dago jada (lan soziolinguistikoak alde batera utzita). Ikuspegi orokorrean, Zuazok (1998) euskalkien mapa eguneratu bat

aurkeztu zuen, eta hamar urtera liburu xeheago bat (2008), gaztelaniara eta ingelesera itzuliko zena.

Euskalki jakinen gainean ere lan ugari egin dira. Batzuk aipatzearen, Gamindek (1997, 1999, 2000, 2001a, 2001b, 2001c, 2002a, 2002b, 2003, 2004a, 2004b; Gaminde et al., 2005) Bizkaiko hainbat hizkera aztertu zituen, Zuazok (2010, 2013, 2018, 2021, 2006; Zuazo & Goiti, 2016) Euskal Herriko hainbat txokotakoak jaso ditu, Iglesiasek (2014) Igorreko hizkeraren azterketa dialektologiko sakona egin zuen, eta azken urteotan Caminok (1999, 2015, 2016a, 2016b, 2023, 2024) ekialdeko hainbat hizkera aztertu ditu.

Hernaniri dagokionean, herriko hizkera linguistikoki aztertu duten lan batzuk aurkeztu dira azken urteotan: Aranburuk (2016) Hernaniko euskararen fonologiako, izen-morfologiako eta aditz-morfologiako ezaugarri bana aztertu zituen, gehienbat diakronikoki. Bestalde, Gallastegik (2018) herriko hitanoko formak bildu zituen, maila sinkronikoan.

Guk hariari jarraitu nahi diogu. Hizkerak linguistikoki aztertzea interesgarria da bere horretan. Jada batzuk ikertu dira —ez gehiegi lurralde osoan ditugun hizkerei erreparatuta—, baina zenbat eta gehiago ikertu, euskararen ezagutza osatuagoa izango dugu, eta hala, aberatsagoa.


Hizkuntza, dialekto edo aldaera lokalago baten deskribapen linguistikoetan, hainbat alor bereiz daitezke. Unitate txikienetatik hasita, fonetika, fonologia, lexikoa, morfologia, sintaxia, semantika eta pragmatika. Lan honetan, bigarrenari eutsiko diogu, fonologiari. Ahoskeraren sakoneko egitura eta haren azaleko aldaketak aztertuko ditugu, maila sinkronikoan, gertatzen diren prozesu fonologikoak deskribatzeko.

1.2. Hernaniko hizkerez

Gipuzkoan dagoen herria da Hernani, zehatzago, Beterri eskualdean eta Buruntzaldea azpieskualdean dagoena. Beraz, erdialdeko hizkera da bertakoa, eta Zuazok (2008) haren sorlekutzat hartzen du eskualdea. Alabaina, Hernanin bi hizkera diatopiko bereizi daitezke, herrian dauden bi bailara nagusiekin bat datozenak.

Azpiko mapan bi hizkeren eremu geografikoak nabarmendu ditugu: horiz, *Buruntzaldeko hizkera* —hemendik aurrera *kalekoa*—, Astigarragan, Hernaniko erdialdean, Urnietan eta

Andoainen egiten dena. Morez, *Urumea bailarako hizkera* —hemendik aurrera *bailarakoa* —, Hernaniko erdialdetik hasi eta Urumea ibaian gora Arano eta Goizueta ingururaino doana. Azken hizkera horrek goi-nafarraren eragina du, are nabarmenagoa gertatzen dena ibaian gora egin ahala.



1. irudia: Hernani inguruko hizkeren erabilera eremuak. Horia: kaleko hizkera. Morea: bailarako hizkera. Lerro laranja: Hernani udalerriaren muga. <https://openstreetmap.org> webguneko irudia, guk editatua.

Bi hizkerak isoglosaz bereizi daitezke, baina nortasun-ezaugarri ezberdinak¹ ere badituzte bateko eta besteko hiztunek. Gure ustez, identitateak paper nabarmena (izan) du isoglosak mantentzeko orduan. Izan ere, ondorioetan jaso ditugun arauen erabilerari buruzko hausnarketetatik ondoriozta liteke identitateak zerikusia duela arauen distribuzio geografikoan. Edonola, beste ikerketa batean kontu hau sakonago ikertzea merezi du.

1 Horren erakusle, bailarako Ereñozu auzoak *auzo-udal* estatus administratiboa lortu zuen 2005ean.

1.3 Helburuak

Lan honen helburu nagusia Hernaniko prozesu fonologikoak identifikatu eta deskribatzea da. Behin hori eginda, arau deskriptiboak hiru multzotan sailkatu ditugu: erabat fonologikoak, morfosintaktiko-fonologikoak eta hedakuntza mugatukoak.

Hiru multzoetan, soinuek dituzten alternantziak jasotzen ditugu, sakoneko egitura ezagututa, azalekoa gertatzen diren aldaketak. Arau bat *erabat fonologikoa* dela diogunean, edozein hitzekin gertatu daitekeela esan nahi dugu. Emankortasunean —maiztasunean— aldeak egon daitezke, baina edozein kategoriako hitzetan gertatzen da prozesua. Morfosintaktiko-fonologikoei dagokionez, morfosintaxiak baldintzatzen ditu prozesuak; hau da, ez dira edozein hitzetan gertatuko, hitz gramatikal jakinetan baizik. Hedakuntza mugatuko arauak bide beretik doaz, baina hitzen kategoria gramatikalaren arabera gertatu ordez, hitz jakin batzuetan besterik ez dira gertatzen, izan lexikoak edo gramatikalak. Azken bi multzoak —morfosintaktiko-fonologikoak eta hedakuntza mugatukoak— eranskinetan txertatu ditugu karaktere mugarengatik.

Lan honetan sei prozesu fonologiko topatuko ditugu (Oñederra, 2004). Ahultzeetan, ahoskatzeko behar den indarra gutxituz aldatzen soinu bat, adibidez, [r] [ɾ] bihurtzea. Asimilazioetan, soinu batek ondoan duen beste baten ezaugarri fonologikoren bat hartzen du; adibidez, [β] ahoskabetu eta /p/ bihurtzea kontsonante ahoskabe baten ondoren. Disimilazioak kontrako prozesua dira, soinu bat ondoan duen beste baten ezaugarrietatik aldentzea; esaterako, /a/ bokal baten aurretik edo ondoren, /e/ eta /o/ bokalak [i] eta [u] ahoskatzea. Epentesietan —*sartze* ere deituak— sakoneko egituren ez dagoen fonema bat ezartzen edo sartzen da azaleko egituren, adibidez, hiato bateko bokalak banantzeko [j] sartzea. Ezabaketetan, soinu bat ezabatzen da —baliteke ahultzearen ahultzeaz—, esate baterako, bokal artean [ø] ezabatzea. Azkenik indartzeak ditugu —ahultzearen kontrako prozesua—, zeinetan airearentzako oztopo gutxi jartzen duen soinu bat oztopo gehiago izatera aldatzen den, adibidez, /i/ bokala [j] kontsonantea bilakatzea.

1.4. Metodologia

Hernaniko hizkerako arauak aztertzeko hiztunen ahozko jarduna izan dugu oinarri, zortzi hiztunena hain zuzen. Hasteko, hiztun-profilak zehaztu ditugu, adinaren, eremu geografikoaren eta generoaren arabera. Hala, kaleko bina gazteren (mutil eta neska) eta

bina adinekoren (gizon eta emakume) grabazioak erabili ditugu, eta beste hainbeste bailaran. Kaleko adinekoren grabazioak Ahotsak.eus webgunetik² hartu ditugu, eta beste guztiak guk elkarrizketatu eta grabatu (sei hiztun).

Grabazioak ortografikoki transkribatu³ eta aldaketa fonologikoak identifikatu ditugu, analisi fonologikorako tresna informatikorik erabili gabe (Praat kasu). Adibide fonologikoak taldekatu eta, antzekotasunei erreparatuta, arauak erauzi ditugu; horretarako fonologia sortzaileko formulak izan ditugu oinarri, Chomsky eta Halle-ren (1968) lan garrantzitsutik abiatuta gaur arteko eragina izan duen ikusmolde teoriko nagusia, alegia. Teoria horretan asumitzen da azaleko egitura fonologikoa baino sakonago beste egitura fonologiko bat dagoela, fonemek jaso ditzaketen aldaketak ulertzen lagundu diezagukeena. Hau da, sakoneko egitura abstrakzio bat izan daiteke, aldaketarik (asimilazioak, disimilazioak, epentesiak, ezabaketak, ahultzeak edo indartzeak) jaso ez duen fonema baten azpiko egitura edo forma. 1980ko hamarkadetatik aurrera, arauak islatzeko formulak eta moduak aldatuz joan dira, baina oraindik sakoneko forma fonologiko bat eta azaleko beste forma fonologiko bat daudela onartzen da. Nik ere horrexeri eutsiko diot.

Azkenik, arauak erabilera-helburuaren arabera sailkatu eta hiztun-profilen arabera arauen ekoizpena kuantitatiboki aldatzen den labur aztertu dugu, lan honetatik beste ikerketaren bati bidea urratzeko.

1.4.1. Hiztun-profilak

Esan bezala, hiru ezaugarriren arabera hautatu ditugu hiztunak:

1.4.1.1. Adina

Adinari dagokionez, bi hiztun-profil bilatu ditugu:

Batetik, 20 eta 35 urte arteko gazteak. 20 urte inguru bete arte, hiztunen hizkera nahikotxo aldatzen dela uste dugu, eta gainera beste hizkeren eragina eta hiperzuzenketa oso nabarmenak direla. Hortik aurrera, hizkera nahikoa egonkortuta dagoela iruditzen zaigu. Gazteei 35 urteko muga ezarri diegu, gutxi gorabehera adin horretara arte ez delako

2 Ikerketa lana GRALeko gaia esleitu aurretik hasi genuen eta, ziurgabetasun horren aurrean, lortzeko zailenak izango ziren grabazioei eman genien lehentasuna.

3 Hernaniko fonologiatik gertuago dagoen ortografia bat erabili dugu, herrikoen idazkera informalean eta benetako ekoizpen fonologikoan oinarrituta. Xehetasun gehiago 36. orrian, eranskinetan.

umerik edukitzen eta horrek ere —gurasotasunak eta horrekin datorren aldaketa soziolinguistikoak— hizkera aldatu lezakeelako.

Bestetik, 75 urtetik gorako pertsonak aukeratu ditugu, are eta adinekoagoak hobeto. Profil honetan, eskolan euskara baturik jaso ez duten pertsonak bilatu ditugu, eta 75 urte adin-muga egokia iruditu zaigu, 1960ko ikastolen loraldian jada gazteak zirelako —2024an 75 urte zituztenek 10-11 urte baino gehiago zituzten 1960an bertan—.

1.4.1.2. Eremu geografikoa

Sarreran azaldu dugunez, Hernanin bi azpi-hizkera daude: kalekoa eta bailarakoa. Azpi-hizkeren artean alde lexiko, fonologiko, morfologiko eta are paralinguistikoak daude. Horregatik, bi eremuetako hiztunak aukeratu ditugu: Hernaniko kalean hezitakoak (Buruntzaldekoa) eta Urumea bailarakoak, Ereñozukoak eta Pagoagakoak hain zuzen.

1.4.1.3. Generoa

Genero-rolek hizkeran eragina izan dezaketelakoan gaude, batez ere adineko hiztunek erabilera-esparru ezberdinetan erabiliko zutelakoan euskara. Esaterako, lan soziolinguistiko askoren arabera, emakume batzuek —adinekoek gehienbat— aldaera estandarreko ezaugarriak hartzeko joera dute, etxetik kanpoko lanbideei esker lortu ezin zuten prestigio soziala jasotzeko asmoz. Generoari dagokionez, gaur egungo gazteen egoera ezberdina da, besteak beste, ez dagoelako hainbesteko lan-segregazioa; hala ere aldeak egon daitezkeenez, gazteetan ere bi generoetako hiztunak hartzea erabaki dugu.

Generoak hizkeran eduki lezakeen eragina kontuan hartzeko eta ikerketan parekidetasuna bultzatzeko —historikoki emakumeei eman ez zaien arreta emateko—, gizon eta emakume kopuru bera hautatu dugu.

1.4.2. Grabazioen metodoa

Hiztunen ohiko hizkera lortzeko —horixe nahi baikenuen—, erregistro informala mantentzea funtsezkoa iruditu zaigu, bestela, hiztunek erregistroa aldatu eta, agian, herriko hizkera bera estandarizatuko zutelakoan. Horregatik, hiztun gehienak guneko publiko eta ohikoetan elkarrizketatu genituen —parkeetan eta taberna bateko terrazan—; bailarako

adinekoak beren etxeetan elkarrizketatu genituen, hala suertatu zelako eta ez zitzaigulako erregistro informalaren oztopo iruditu.

Tokia tentuz aukeratzearekin batera, grabagailua ere halaxe aukeratu genuen, eta mugikor soil bat erabili genuen⁴, mikrofono profesionalago bat erabiltzekotan hiztunak urduritu eta erregistroa aldatu zezaketela pentsatuta.

Bi hautu horiei esker, hiztunen ekoizpena oso arrunta izan zen —arruntagoa adinekoen kasuan, gazteek, urduritasunak jota, herriko hizkera baturantz estandarizatzen zutelako noizean behin—. Grabazioak transkribatutakoan, argi ikusi dugu Ahotsak.eus webgunetik hartutakoak askoz ere garbiagoak zirela, etxe barruan eta mikrofono onez zeudelako grabatuak.

Teknika alde batera utzi eta hiztunen ekoizpenari lotzen bagatzaizkio, esanguratsua da gazteek askoz ere etorri txikiagoa dutela, edo elkarrizketarako joera; adinekoek, aldiz, denbora gehiago irauten dute gai baten inguruan hizketan, bakarrizketatik gertuago. Gazteen grabazioetan galde-erantzun zati gehiago daudenez, haien transkripzioak luzeagoak dira, toki eta denbora gehiago hartzen baitute ekoizpen-kopuru bera lortzeko. Hiztun bakoitzetik 5 eta 10 minutu artean transkribatu ditugu, ekoizpen propiotik bi orrialde inguru betetzeraino.

1.4.3. Prozesuak deskribatzeko metodoa

Aipatu bezala, fonologia sortzaileak eskaintzen dituen formulak erabili ditugu arauak idazteko. Arau bakoitzean adibide gutxi batzuk eman ditugu, ulergarritasunaren mesedetan, *toki* berean prozesu bakarra aplikatzen dutenak. Izan ere, grabazioetan jasotako hitz mordo batean, prozesu bat baino gehiago aplikatzen dira *toki* bakar batean, eta horrek prozesu bakoitza argi ikustea eta ulertzea zailtzen du. Arau batzuetan, ordea, hainbat prozesu kateatzen dituzten adibideak gehitu ditugu arauaren xehetasunak erakuste aldera. Horretarako taulak erabili ditugu, zeinetan zutabe bakoitzean prozesu bakar bat jasotzen den.

⁴ Gaur egungo mugikorrren grabazio-kalitatea ona da, nahikoa hiztunen ekoizpena bereizteko. Kalitatea ziurtatzeko, guk 44,1 kHz-eko lagin-tasan grabatu dugu.

1.4.4. Arauak izendatzeko laburdurak

Arauei izena emateko, bakoitzean gertatzen den prozesu fonologikoaren laburdura bat erabili dugu:

- AS: asimilazioa
- DI: disimilazioa
- EP: epentesia
- EZ: ezabaketa
- IN: indartzea

Bistan denez, prozesuaren euskarazko izenaren lehen bi hizkiak hartu ditugu laburdurak sortzeko, eta ondoren zifra bat gehitu diogu bakoitzari. Arau bakoitzari zein zifra jarri diogun erabat arbitrarioa da, prozesu berdina duten hainbat arau ezberdintzeko baino ez du balio.

Antzekotasun handia duten arauak ezberdintzeko, adibidez hainbat kontsonante koroari sabaikaritzen dituzten asimilazio-prozesuak, edo jatorriz prozesu berbera duten bi arau testuinguru oso antzeko batean gertatzen direnean⁵, alfabeto latinoko hizkiak zenbakitze-zifren ostean gehitu ditugu:

- AS1a
- AS1b
- AS1c
- EZ3a
- EZ3b
- EZ4a
- EZ4b
- Eta abar.

Erabat fonologikoak ez diren arauak ezberdintzeko, izenaren hasieran laburdura jarri diegu:

- MS: morfosintaktikoa
- HM: hedakuntza mugatukoa

Horrela sortzen dira honelako izenak:

- MSAS2
- MSEZ1

⁵ Adibidez, bokal baten ostean edo bokal baten aurrean gertatzea.

- MSIN1
- HMEZ1
- Eta abar.

Azkenik, arau batek behar lukeen fonema sortu ordeztu, testuinguruarengatik alofono bat ematen dutenean, azkenari kakotx bat jarri diogu bukaeran, zertxobait ezberdina dela adierazteko:

MSAS1 eta MSAS1'

1.4.5. Fonologia-terminoen glosarioa

Euskal Fonetika-Fonologiaren Ikasketarako Gaiak (Jauregi & Oñederra, 2015) ikas-liburuan jasotako euskarazko termino fonologikoak erabili ditugu lan honetan. Termino gutxi batzuk Gussenhoven eta Jacobsek (2017) deskribatutakoak itzulita erabili ditugu, hain zuzen, balio bakarreko tasunak (beti positiboan) eta +-distributed, ez dugulako Jauregi & Oñederra-ren 2015eko lanean aurkitu:

Ingeleseko terminoa	Euskarazko terminoa
±distributed	±hedatu
dorsal	dorsal (DOR)
labial	ezpainkari (EZP)
coronal	koroari (KOR)

1. taula: Jauregi & Oñederra (2015) proposatutako terminoen gain erabili ditugun terminoak.

Formulak arintzearen, ohiko euskal terminoen laburdurak erabili ditugu:

Termino osoa	Termino laburtua
±sudurkari	±sudur
±kontsonantiko	±konts

2. taula: Fonologia-termino batzuen laburdurak

1.4.6. Adierazpen fonologikoez: arau-formulak eta transkripzio fonologikoak

Arau fonologikoak sintetikoki adierazteko, fonologia sortzaileko formulak erabili ditugu. Haietan, aldaketak balio bitarreko ezaugarri fonologikoez adierazten dira. Ez badago + edo – balioa duen fonema-talde naturalik, balio bakarreko ezaugarriak (monobalenteak) erabili ditugu.

Formula fonologikoen forma honakoa da: aldatzen den fonema ezkerrean agertzen da, + edo – balioko ezaugarri fonologikoekin adierazita (edo ezaugarri monobalenteen bitartez). Eskuinean, geziaren bitartez aldaketa bat gertatzen dela adierazten da ($\rightarrow$). Geziaren eskuinean, aldaketa adierazten da, aldatzen diren ezaugarri fonologikoak adieraziz, kortxete artean ([]). Aldaketaren eskuinean, marra etzanak ingurune fonologikoa adieraziko dela ohartarazten digu (/), hau da, zein bokal edo kontsonanteren aurrean edo atzean doan aldatzen den fonema, edo hitzaren edo silabaren hasieran edo bukaeran dagoen aldatzen den fonema. Aldatzen den fonemaren tokia azpiko marra batekin adierazten da ($_$), eta inguruneko bokal edo kontsonantea marraren ezkerrean edo eskuinean adierazten da, aldatu den fonemaren aurrean edo atzean baldin badoaz. Horiek ere ezaugarri fonologikoen bitartez adierazten dira. Argigarriagoa izango delakoan, azpiko taulan jaso ditugu ikurren esanahiak:

Ikurra	Azalpena
$\emptyset$	Ezereza.
/	Arauaren testuinguruaren sarrera.
–	Prozesuaren kokalekua.
#	Hitzaren bukaera.

3. taula: Formula fonologikoetan erabilitako ikurrak.

Jarraian formula bat txertatu dugu, adibiderako:

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} KOR \\ + \text{ jarraitu} \\ - \text{ aurreko} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} + \text{ goiko} \\ - \text{ atzeko} \end{array} \right] - [- \text{ konts}]$$

Azpimarratu beharra ikusten dugu formulotan ezaugarri-bikote fonologikoak erabili ditugula, ez deskribapen fonetikoak. Horrek esan nahi du, adibidez, +hedatu erabiliko dugula *lepokari* termino fonetikoa adierazteko, eta –hedatu apikari esateko.

Hiztunen ekoizpenari dagokionez, lanean gehitutako adibideak Nazioarteko Alfabeto Fonetikoa (NAFa) erabiliz transkribatuta eman ditugu, eta konbentzioari jarraituta. NAFeko

ikur eta diakritikoak erabiliko ditugu fonemen eta haien azaleko egiturako formak zehaztasunez adierazteko.

1.4.7. Fonemak eta alofonoak

Hernaniko hizkera euskara denez, ez ditugu euskara estandarreko fonema eta alofonoak azalduko, jakintzat ematen ditugulako (Hualde & Ortiz de Urbina, 2003). Hortaz, atal honetan euskara estandarrean ez baina Hernaniko hizkeran badauden fonema eta alofonoak azalduko ditugu, baita horien gaineko hiztunen joerak eta beste xehetasun batzuk ere.

Hernaniko hizkeran ez dago /h/ fonema, eta agertzekotan, /x/ fonemaren ahultze fonetiko bat izan daiteke, ez fonologikoa.

/x/ da estandarreko jotari esleitutako fonema, ez /j/. Azken hori —/j/, zuzenago izateko— soinu epentetikoa edo alofinoa izan daiteke, baina ez du pare minimorik osatzen.

Batuko /s̺/ fonema ezberdina da adinekoen eta gazteen hizkeran. Gazteena lepokaria da —/s̺/, +hedatua— eta adinekoek, berriz, apikariagoa —/s/— egiteko joera dute. Berdintsu gertatzen da afrikatuetan: gazteena /t͡s̺/ da, eta zaharrek /t͡s̺/-rako joera dute. Herriko hizkerarentzat fonema bakarra aukeratzeko orduan, /s̺/ aukeratu dugu.

Afrikatuen haritik, badirudi ez dela arrunta /t͡s̺/ fonema gisa erabiltzea, estandarreko fonema hori /t͡f/ delako Hernanin, badirudi era sistematikoan. Baliteke /t͡s̺/ fonema gisa ez edukitzea sabaikaritze afektibo lexikalizatua izatea, fonema-errepertorioaraino iritsitakoa.

Badago gazteen eta adinekoen artean ezberdina den beste joera bat, inguruko hizkeretan eta gaztelaniaz ere gertatzen dena: duela hamarkada batzuk, /ʎ/ eta /j/ fonema ezberdinak ziren, eta aztertutako adineko hiztunentzat hala dirauela dirudi. Gazteentzat, aldiz, alofonoak dira biak eta, are gehiago, /ʎ/ ez dago haien soinu- eta fonema-errepertorioan; horregatik, /ʎ/ behar lukeen egoeretan /j/ egiten dute, AS1c arauan adibidez (ikusi 20. orr.).

2. Arau erabat fonologikoak

Arauok prozesuen arabera multzokatuta jaso ditugu, eta haien maiztasunaren arabera, ez alfabetikoki.

EZ2a: $V_1V_1 \rightarrow V_1$ ezabaketa

$$\begin{bmatrix} \alpha \text{ goiko} \\ \beta \text{ atzeko} \\ \gamma \text{ beheko} \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / _ \begin{bmatrix} \alpha \text{ goiko} \\ \beta \text{ atzeko} \\ \gamma \text{ beheko} \end{bmatrix}$$

Kalitate bereko bi bokal elkartzean, bat ezabatzean datza. Bi modutan gertatu daiteke hori:

1. Bokalak hitz baten bukaeran eta hurrengoaren hasieran elkartzean:

/o.ʂo ɔn.ɔ/	> /o.ʂoɔn.ɔ/
/ta aɪm.βeʂ.tɛ/	> /taɪm.βeʂ.tɛ/
/ta a.tʃal.dɛ.ko/	> /ta.tʃal.dɛ.ko/
/i.tʃi iɛ/	> /i.tʃiɪ.tɛ/

2. Arau-kateatu forman, hau da beste arau fonologiko batengatik bokalak elkartzean.

Adibidean, EZ1 aplikatu ondoren:

Sakoneko forma	EZ1	EZ2a
/ba.tɛ.rɛ/	/ba.tɛ.ɛ/	/ba.tɛ/
/xɛn.dɛ.a ɔa.ʎo.la/	/xɛn.dɛ.a a.ʎo.la/	/xɛn.dɛ.a.ʎo.la/
/ɛ.rɛ.βai/	/ɛ.ɛ.βai/	/ɛ.βai/
/nɛ.rɛ/	/nɛ.ɛ/	/nɛ/

4. taula: EZ2a arauaren adibide gehiago arau-katean.

Hernaniko hizkera sinkronikoki aztertzen badugu, kostata topatuko dugu kalitate bereko bi bokal elkarren ondoan dituen erro bat. Dirudienez, joera oso egonkortua da halako errorik ez edukitzea, hiztun batzuen salbuespenak salbuespen¹³.

Ezabaketa-arau honek baldintza bat du, kalitate bereko bi bokalak atonoak eta diptongo gabeak izan behar direla.¹⁴

¹³ Grabazioetan adibide bakar-bakarra topatu dugu, hiztun bakarrak behin bakarrik ekoitzia: /lɛ.ɛn/.

¹⁴ Hau argitzeko adibide bat ekarriko dugu: /a.la/ erakusleak (*hala*, estandarrean) lehen silaban du azentua. Beraz, /ta a.la/ hitz segida edukiko bagenu, okerra litzateke /ta.la/ laburtzea, bigarrena tonikoa delako; asko jota, bokal luze bihurtuko litzateke silaba tonikoa: /ta:.la/ Bi fonemetako bat diptongoa bada, aldiz, ezabaketa gertatu daiteke, aurrean agertutako /taɪm.βeʂ.tɛ/ adibidea kasu.

EZ2b: /n/-ren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{c} + \textit{sudur} \\ \textit{KOR} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[\begin{array}{c} + \textit{sudur} \\ \textit{KOR} \end{array} \right]$$

Aldaera honetan, /n/ fonema ezabatzen da:

$$\begin{array}{ll} /e.nun \textit{nai}/ & > /e.nu.\textit{nai}/ \\ /xun \textit{ni.t}\text{̥}san/ & > /xu.\textit{ni.t}\text{̥}san/ \\ /e.\textit{san na.}\text{e}\text{̥}t/ & > /e.\textit{sa.na.}\text{e}\text{̥}t/ \end{array}$$

EZ2c: /s/-ren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / - \left[\begin{array}{c} + \textit{jarraitu} \\ \textit{KOR} \\ + \textit{hedatu} \end{array} \right]$$

Arauaren aldaera honetan, /s/ ezabatzen da beste /s/ baten aurrean dagoenean. Adibideei erreparatuta, pentsa liteke *ez* hitzarekin eta /s/ fonemaz hasten diren aditz laguntzaileekin bakarrik gertatzen dela. Edonola, arau nagusiaren beste aldaerek eta 12. oin-oharrean azaldutako adibideak erakusten dute, seguruena, arau erabat fonologikoa dela hau ere.

$$\begin{array}{ll} /e\text{̥} \textit{sau.}\text{e}\text{̥}t/ & > /e.\textit{sau.}\text{e}\text{̥}t/ \\ /e\text{̥} \textit{s}an/ & > /e.\textit{s}an/ \\ /e\text{̥} \textit{s}\text{e.}\text{on}/ & > /e.\textit{s}\text{e.}\text{on}/^{15} \\ /e\text{̥} \textit{s}u.\textit{ten}/ & > /e.\textit{s}u.\textit{ten}/ \end{array}$$

EZ3a: /e/-ren ezabaketa (bokal baten ostean)

$$\left[\begin{array}{c} - \textit{goiko} \\ - \textit{atzeko} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [-\textit{konts}] -$$

Arau honetan /e/ bokala ezabatzen da. Ohikoena ezabaketa hau bokal baten ondoren gertatzea da (EZ3a), baina bokal baten aurretik ere gertatu daiteke (ikusi EZ3b azpian). Ikus ditzagun adibide batzuk:

ere partikulako lehen silaba ezabatzea oso ohikoa da:

15 Azken bi adibideotan /s/ erabiltzen da. Hori hala da zaharrenen hizkeran hori delako gazteen /s/ fonemaren parekoa. Jo 1.4.7. Fonemak eta alofonoak atalera (11. orr.) argibide gehiagorako.

/e̞.ʦa.ɐ.rɐ/ > /e̞.ʦa.rɐ/
 /oi.ɐ.rɐ/ > /oi.rɐ/

Beste adibide batzuk ekarriko ditugu hona, aurrekoengandik bananduta, hauek morfosintaxiarekin zerikusia dutelako. Hasieran zalantza egin genuen orain adibidez erakutsiko dugun ezabaketa hau ez ote zen beste arau morfosintaktiko bat, baina arau berbera zela ondorioztatu genuen azkenerako, nahiz eta morfema funtzionala den -e- bat ezabatu, hots, mugagabeko eta mugatu pluraleko -e-:

/gu.ʦi.ɐ.tan/ > /gu.ʦi.tan/
 /ur.tɛ.ɐ.tan/ > /ur.tɛ.tan/
 /ba.ʦu.ɐ.kin/ > /ba.ʦu.kin/
 /ʒor.ʦi.ɐ.tan/ > /ʒor.ʦi.tan/
 /bɛ.ʦu.ɐ.tan/ > /bɛ.ʦu.tan/

Ildo beretik, *hiru* eta *lau* hitzei inesibo marka gehitzean zer gertatzen den aztertuko dugu. Bi hitzon inesibo mugagabeko formak /i.ru.tan/ eta /lau.tan/ dira, estandarrean zein herriko hizkeran.

Inesibo pluraleko formak, aldiz, ezberdinak dira herrian. Bi hitz horiek historikoki berekin dakarten /r/-a ezabatzen da lehenengo (EZ1) eta, ondoren, /ɐ/-a (EZ3a). Ondorioz, inesibo plural zein mugagabeak forma berdina hartzen dute herrian:

Sakoneko forma	EZ1	EZ3a
/i.ru.ɐ.tan/	/i.ru.ɐ.tan/	/i.ru.tan/
/lau.ɐ.tan/	/lau.ɐ.tan/	/lau.tan/

5. taula: EZ3a arauaren adibide gehiago arau-katean.

Uste dugu horren ondorio bat zera dela, Hernaniko gazteek, euskara batuan egitean ere, ez dituztela ezberdintzen mugagabea eta mugatu plurala, haien jatorriko hizkeran ez direlako ezberdintzen EZ3(a/b) ezabaketa aplikatzen denean.

EZ3b: /ɐ/-ren ezabaketa (bokal baten aurrean)

$$\begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / _ [-konts]$$

EZ3a arauan bezalaxe, /e/ ezabatzen da, baina oraingoan bokal baten aurrean. Hona hemen adibide batzuk, ez baita EZ3a bezain emankorra:

/s̥e.a/	> /s̥a/ ¹⁶
/be̞i.õa/	> /bi.õa/
/i.s̥a.ɬe.i.ɕeu/	> /i.s̥a.ɬe.i.cu/

EZ4a: /a/-ren ezabaketa (bokalk silabiko baten aurrean)

$$\left[\begin{array}{l} +atzeko \\ +beheko \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ [-konts]$$

Arau hau CV silaba-egitura mantentzeko (Hyman, 1975) erabiltzen da, bi bokalk silabiko hurrenez hurren daudenean —hiato bat dagoenean—, /a/ ezabatu eta egitura silabiko *naturala* lortzeko.

/or̥.du.βa.ta.ta.ɛr̥.d̥i.ta.l̥d̥i.ɛn/	> /or̥.du.βa.ta.t̥ɛr̥.d̥i.ta.l̥d̥i.ɛn/
/ta.ɛ.s̥a.ɬe.ue̞/	> /t̥ɛ.s̥a.ɬe.ue̞/

Adibideetan ikusten den /a.e/ hiatoa ezabatzeko hiru konponbide dituzte hiztunek: EZ4 arauak, EZ3-ak (15. eta 16 orr.), eta IN1 (27. orr.).

EZ4b: /a/-ren ezabaketa (bokalk silabiko baten ondoren)

$$\left[\begin{array}{l} +atzeko \\ +beheko \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [-konts] _$$

EZ4 arauaren aldaera honetan, bigarren bokala ezabatzen hausten dira hiatoak, kasu honetan /a/ ezabatzen:

/be̞.ar/	> /be̞r/
/u̞s̥.ɬe.i.at/	> /u̞s̥.ɬe.it/
/ɛ.s̥a.ɬe.i.at/	> /ɛ.s̥a.ɬe.it/

EZ5a: /i/-ren ezabaketa (monoptongatzea)

$$\left[\begin{array}{l} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [-konts] _$$

¹⁶ Sakoneko forma estandarreko *zara* hitzaren baliokidea da.

/sei.nek/ > /se.nek/

/ʃeḯ.nek/ > /ʃeḯ.nək/
/o.ain/ > /o.an/
/i.çe i.sa.te/ > /i.çe sa.te/

EZ5b: /u/-ren ezabaketa (monoptongatzea)

$$\begin{bmatrix} +goiko \\ +atzeko \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / [-konts]_-$$

Badirudi /u/ bokal irristaria ezabatzeko prozesua egonkortuago dagoela, salbuespen lexikalizatuak¹⁷ salbuespen, oso kasu bakanetan entzuten direlako ezabaketarik gabeko formak. Gure susmoa da, entzutekotan, euskara estandarraren eraginez sortuak direla. Ziurrenik, diptongoetako /u/ bokal irristaria galdu egin zen Hernaniko sakoneko formetatik, hitzun helduen artean ez baita ia entzuten, baina gazteen ahotan gehiago entzuten ari da.

/lau.ɾɔ.ɣɛi/	> /la.ɾɔ.ɣɛi/
/sɿau.ka.tɛn/	> /sa.ka.tɛn/
/sɛ.nɛu.ka.la/	> /sɛ.nɛ.ka.la/
/ba.ɣɛun.dɛn/	> /ba.ɣɛn.dɛn/
/lau.rɛ.un/	> /la.rɛ.un/
/naus.kan/	> /naʂ.kan/

Honekin batera, /au/ silaba /o/ bihurtzeko joera nabaritu dugu, nahiz eta ez dugun hiztun-profilen batekin harremanik ikusi. Honen adibideak, bi arau-katean:

Sakoneko forma	EZ3a	EZ5b
/a _ɐ n.ɖi/	—	/ɔn.ɖi/
/a.ɤ _ɐ .kin/	— ¹⁸	/ɔ.kin/
/a.ɤ _ɐ k/	—	/ɔ.k/

6. taula: EZ5b arauaren adibide gehiago arau-katean.

17 Esaterako, /laʊr.ð̞ən/ da zuzena eta ez /lar.ð̞ən/.

18 Azken bi adibideotan, EZ3a aplikatutakoan, irristaria silabaz aldatu da. Dagozkien formak, entzuten ez direnak, */au_h.kin/ eta */au_h/ lirateke. Lan osoan zehar, izartxoak (*) existitzen ez den forma edo okerra adierazten du.

2.2. Asimilazioak

AS1: asimilazioak

AS1 arau-sorta honetan, kontsonante koroari batzuek /i/ baten ostean jasaten duten sabaikaritzeak jaso ditugu. Izan ere, /i/ bokala itxia eta aurrekoa da, eta mihiaren bizkarra sabai gogorraren azpian kokatzen da, hortaz /i/ bokalari “bokal sabaikaria” deitzen zaio fonetikan eta fonologian. Prozesu fonologiko hutsak bilduko ditugu, ez semantikarekin lotutako sabaikaritze afektiboak.

AS1a: /t/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\left[\begin{array}{l} KOR \\ -jarraitu \\ +hedatu \\ -ahots \end{array} \right] \rightarrow [-aurreko] / \left[\begin{array}{l} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] - [-konts]$$

/t/, kontsonante koroari, herskari, lepokari eta ahostuna, /i/ bokalaren eta beste bokal baten artean sabaikaritu eta [c] bihurtzen da.

/pɔ.li.ṭa/	> /pɔ.li.ca/
/deṣ.ku.βri.ṭu/	> /deṣ.ku.βri.cu/
/ni.ṭun/	> /ni.cun/
/i.te.a/	> /i.ce.a/
/ai.ṭei/	> /ai.cei/
/a.ri.ṭu.ṭa/	> /a.ri.cu.ṭa/
/i.ṭei.ṭu.ḡ/	> /i.cei.cu.ḡ/

AS1b: /n/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\left[\begin{array}{l} +sudur \\ COR \end{array} \right] \rightarrow [-aurreko] / \left[\begin{array}{l} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] - [-konts]$$

/n/ sabaikaritu egiten da aurretik duen /i/ bokalarekin asimilatuta. Gainera, derrigorrezkoa da /n/-aren ondoren bokal bat egotea, izan hitzean bertan edo hurrengo hitzean. Segidan nahikoa argigarriak iruditzen zaizkigun adibide batzuk idatzi ditugu:

/ṣi.nan/	> /ṣi.jan/
/a.ma.ir.xin ɔi/	> /a.ma.ir.xin ɔi/
/a.ki.nən/	> /a.ki.jən/

/ur.ɾe.kin ɛs.kɔn.du/ > /ur.ɾe.kin ɛs.kɔn.du/
 /ɛ.ɟin aɪ.ɟɛ.la/ > /ɛ.ɟin aɪ.ɟɛ.la/

AS1c: /l/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\left[+albokari \right] \rightarrow \left[\begin{array}{l} -albokari \\ -aurreko \end{array} \right] / \left[\begin{array}{l} +goikoa \\ -atzeko \end{array} \right] - \left[-konts \right]$$

Azpiarau honetan /l/ kontsonantea sabaikaritu eta [ʎ] bihurtzen da, aurrekoen testuinguru berean. 1.4.7. *Fonemak eta alofonoak* atalean azaldu dugu gazteek, [ʎ]-n sabaikaritu ordez, [j]-n egiten dutela. Hitzunen fonema-errepertorioaren arabera da.

Adibideotan [ʎ] adieraziko dugu, baina batzuetan [j] da. *Praat* edo antzeko programaren batekin aztertzea komeni da:

/i.βi.li/ > /i.βi.ʎi/
 /bi.la/ > /bi.ʎa/
 /lan.ɡi.li.a/ > /lan.ɡi.ʎi.a/
 /bi.lɔ.βa/ > /bi.ʎɔ.βa/

AS1d: /s/-ren sabaikaritzea (asimilazioa)

$$\left[\begin{array}{l} KOR \\ +jarraitu \\ -hedatu \end{array} \right] \rightarrow \left[-aurreko \right] / \left[\begin{array}{l} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] -$$

Aurreko azpi-arauen moduan, /s/ sabaikaritu eta /f/ bihurtzen da aurretik /i/ bat duenean. Adibideetan aurkeztuko ditugun forma asko lexikalizatuta daude dagoeneko:

/bi.ɟi.ɣu/ > /bi.ɟi.ɣu/
 /laɪs.ɾɛr/ > /laɪf.ɾɛr/
 /i.ɟi.lik/ > /i.ɟi.lik/
 /i.ɾis.ɾɛr/ > /i.ɾif.ɾɛr/

AS2: [β]-ren ahostuntzea (asimilazioa)

$$\left[\begin{array}{l} EZP \\ +jarraitu \\ +ahots \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{l} -jarraitu \\ -ahots \end{array} \right] / \left[-ahots \right] -$$

Arau honetan, [β] —/b/ fonemaren alofono hurbilkaria— herskari ahoskabe bihurtzen da, hots, [p], aurretik duen kontsonante ahoskabe batekin asimilatuta.

/e̞.βa.ðe̞.su/ > /e̞.pa.ðe̞.su/
 /ðem.βo.ik βe̞/ > /ðem.βo.ik pe̞/¹⁹
 /o̞r.t̪ik βa/ > /o̞r.t̪ik pa/

AS3: /a/→[e̞] joera (/e̞/ edo /i/-rekin asimilatuta)

$$\begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} -atzeko \\ -beheko \end{bmatrix} / [-atzeko] (+konts)_$$

/e̞/ edo /i/ bokalen ondoren dagoenean —kontsonante bat tarteko edo ez—, /a/ asimilatu eta [e̞]²⁰ bihurtzen da:

/si.an/ > /si.ɛn/²¹
 /o̞.aᵿn ða.la/ > /o̞.aᵿn ðe̞.la/
 /be̞.ṣa.la/ > /be̞.ṣa.la/
 /ko̞.lo̞.ri.ak/ > /ko̞.lo̞.ri.ek/
 /e̞.ṣal.ði.a/ > /e̞.ṣal.ði.e̞/

AS4a: /e̞/→[a] joera (/a/-rekin asimilatuta)

$$\begin{bmatrix} -atzekoa \\ -behekoa \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} / _{+konts} \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix}$$

AS3 arauaren kontrako joera honetan, /e̞/ asimilatu egiten da /a/ baten aurretik, tartean kontsonante bat edo gehiago duela.

/ne̞.ṣ.kan/ > /na̞.ṣ.kan/
 /ṣe̞u̞.kan/ > /ṣau̞.kan/
 /ba.ne̞u̞.kan/ > /ba.nau̞.kan/
 /ðe̞.na/ > /ða.na/

19 Bigarren hitza (/βe̞/ > /pe̞/) “gabe” postposizioaren forma laburtua da.

20 Autore askok azaldu dutenari jarraituz, besteak beste Martínez-Celdránek (2003), aurreko erdiko bokal bakarra duten hizkuntzetan, bokal horrek beheranzko joera du, benetan erdiko posizio bat hartzera. Dagokion NAFeko diakritikoa erabili dugu hori adierazteko lan osoan zehar, eta berdin atzeko erdiko bokalarentzat.

21 Lehen bi adibide hauek sinkronikoki eta Hernanin ulertu behar dira, ez estandarraren aldean.

AS4b: /e/→[a] joera (/a/-rekin asimilatuta)

$$\begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} / \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} [+konts] _$$

Aurreko azpi-arauaren bidetik, /e/ [a]-ra asimilatzen da, oraingoan beste /a/ baten ondoren, tartean kontsonante bat edukita.

/ba.ʂe.ri/	> /ba.ʂa.ri/
/baʂ.t̪e.r̪e.a/	> /baʂ.t̪a.r̪e.a/
/ba.ʂe.kin/	> /ba.ʂa.kin/

2.3. Disimilazioak

DI1: /e/→[i] disimilazioa

$$\begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} \rightarrow [+goiko] / _ [-konts]$$

Arau oso emankorra honetan, /e/ bokala [i] bihurtzen da bokal baten aurretik.

/k̟.t̪̞e u.a/	> /k̟.t̪̞i u.a/
/pa.ʂe.a.t̪̞en/	> /pa.ʂi.a.t̪̞en/
/bi.ðe.an/	> /bi.ði.an/
/al.de.an/	> /al.di.an/

Arauk salbuespen bat du. EZ1 ezabaketaren ondorioz (12. orr.), kasu-morfemaren batean /e.a/ silabak geratu baldin badira, ez da DI1 disimilazioa aplikatzen. Uste dugu entzulearen mesedetan egiten dela hau, silaba horien morfologia errazago ezberdindu dadin:

/baʂ.kal.t̪̞e.a xun/	> */baʂ.kal.t̪̞i.a xun/
/a.ʂi ʂi.a.ne.a.k̟/	> a.ʂi */ʂi.a.ni.a.k̟/
/ka.le.a x̟a.t̪̞e.k̟/	> */ka.li.a x̟a.t̪̞e.k̟/
/i.t̪̞a.le.tik i.t̪̞a.le.a/	> i.t̪̞a.le.tik */i.t̪̞a.li.a/

Aldiz, /e.a/ silabak kasu absolutiboan baldin badaude, DI1 araua aplikatu daiteke, nahiz eta ez den derrigorrezkoa ez ohikoa:

/moʂ.k̟.r̪̞e.t̪̞an eʂ i.β̞il.t̪̞e.a/	> [...] /i.β̞il.t̪̞i.a/
/o.β̞i.a ð̞e.ɔ.ni ð̞e.na eʂ.pli.ka.t̪̞e.a/	> [...] /eʂ.pli.ka.t̪̞i.a/
/t̪̞in.t̪̞o i.ʂa.te.a/	> [...] /i.ʂa.ti.a/

DI2: /o/→[u] disimilazioa

$$\begin{bmatrix} +atzeko \\ -beheko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +goiko \\ -konts \end{bmatrix} / _ [-konts]$$

DI1 disimilazioaren oso antzekoa da disimilazio hau, emankortasunean ere bai. Honetan, /o/ [u] bihurtzen da bokal baten aurrean dagoenean.

/t̪on.t̪o.a.na/	> /t̪on.t̪u.a.na/
/ti.p̪o ɔr.ta/	> /ti.pu ɔr.ta/
/x̪o.an/	> /xu.an/
/al.dr̪e.β̪e.ʂa.ɣ̪o.a/	> /al.dr̪e.β̪e.ʂa.ɣ̪u.a/

DI3a: /a/→[ɛ] joera (ondorengo /a/ batekin disimilatuta)

$$\begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} / _ (+konts) \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix}$$

/a/ disimilatu eta [ɛ] bihurtzen da ondoren /a/ bat duenean, tartean kontsonante bat izan edo ez. Adibide gutxi batzuk jaso ditugu, lexikalizatu gisa interpreta litezkeenak:

/ɛr.ɖa.raʂ/	> /ɛr.ɖɛ.raʂ/
/ɛuʂ.ka.raʂ/	> /ɛuʂ.kɛ.raʂ/

Aldiz, badugu lexikalizatuta ez dagoen adibide bat, arau kateatu moduan:

Sakoneko forma	DI3a	EZ1	EZ2
/i.ka.ra.ɣ̪a.ri/	/i.kɛ.ra.ɣ̪a.ri/	/i.kɛ.a.a.ri/	/i.kɛ.a.ri/ ²²

7. taula: DI3a arauaren adibide gehiago arau-katean.

DI3b: /a/→[ɛ] joera (aurreko /a/ batekin disimilatuta)

$$\begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} / \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} (+konts) _$$

Aurreko azpi-arauaren prozesu bera gertatzen da hemen, baina /a/ aurrean dagoenean, kontsonanteren bat tarteko egon daitekeela.

Bi adibide besterik ez ditugu jaso:

²² /i.ka.ri/ forma ere entzuten da, sakoneko forman EZ1 eta EZ2 birritan aplikatuta sortua.

/pa.ɣa/ > /pa.ɣe/
 /eɣ.pa.ɣa/ > /eɣ.pa.ɣe/²³

DI4: /e/→[a] joera (/e/ edo /i/-rekin disimilatuta)

$$\begin{bmatrix} -goiko \\ -atzeko \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} / [-atzeko] (+konts) _$$

Aurretik /e/ edo /i/ bat daukanean, /e/ disimilatu eta [a] bihurtzen da. Hona hemen adibide batzuk:

/be.ɣe.la/ > /be.ɣa.la/
 /e.ɣu.ɣe.ɣin/ > /e.ɣu.ɣa.ɣin/
 /du.ɣe.nai/ > /du.ɣa.nai/
 /pin.tɣe.kin/ > /pin.tɣa.kin/
 /u.mi.ɣe.tɣa.ko/ > /u.mi.ɣa.tɣa.ko/

Adibide gehiago topatzeko arau kateatuetara jo behar dugu:

Ustezko garai bateko sakoneko forma	DI4	EZ1
/e.ɣe.nɣe.ɣun/	/e.ɣa.nɣe.ɣun/	/e.ɣa.nɣe.un/
/e.ðe.ki/	—	/e.ɣa.ki/ ²⁴

8. taula: DI4 arauaren adibide gehiago arau-katean.

2.4. Ahultzeak

AH1: /r/→[r] ahultzea

$$\begin{bmatrix} -jarraitu \\ KOR \\ -hedatu \end{bmatrix} \rightarrow [+hedatu] / [-konts] _$$

Bokal baten osteko /r/-a ahuldu eta [r] bihurtzean datza arau hau. Hedatutasuna da aldatzen den ezaugarria, apikari izatetik lepokari izatera igarotzen baita. Gainera, /r/ ekoizteko, hobian gutxienez bi kolpe azkar egiten dira, hersketa laburrak. /r/, aldiz, hersketa

²³ Sakoneko forma /eɣ.pa.ɣa/ da. [ɲ]-aren ordez [j] egin izana fonetikoki ulertu behar da.

²⁴ Nahiz eta ez dugun grabazioetan jaso, disimilazio hau *eder* hitzaren erroan bertan gertatzen da besteak beste, eta jada /e.ɣa/ da, hiztun askorentzat lexikalizatua. Kateko DI4 arauan */e.ða.ki/ forma sortuko litzatekeelakoan gaude, baina ez denez erabiltzen, ez dugu katean sartu.

txiki bat edo are igurzte azkar bat da, oso laburra da iraupenaren aldetik. Horren guztiarengatik, ahultzetzat ulertzen dugu prozesu hau.

/su.ru.mu.ru.a.kin/ > /su.ru.mu.ru.a.kin/
 /ʃe.ri/ > /ʃe.ri/²⁵
 /bi.ra.cɔ.nak/ > /bi.ra.cɔ.nak/

AH2: /ð/→[r] errotazismoa (ahultzea)

$$\left[\begin{array}{c} + \text{jarraitu} \\ \text{KOR} \\ + \text{hedatu} \\ + \text{ahots} \end{array} \right] \rightarrow [- \text{albokari}] / [- \text{konts}] _$$

Errotazismoa da arau honen funtsa, /ð/ ahuldu eta [r] bihurtzea. Bi kontsonanteak hurbilkariak izanda, argitu beharra ikusten dugu /r/ askoz ere ahulagoa dela, iraupenean oso laburra delako. [r] *-hedatua* bada ere, ez dugu arauan adierazi, euskal errepertorio fonologikoan ez dagoelako *-albokari +hedaturik*; hau da, *-albokari* dela esatea nahikoa da kontsonantea deskribatzeko.

Arau-kate batean jaso dugu adibide bakarra:

Sakoneko forma	EZ5b	AH2
/ʃeu.ðen/	*/ʃe.ðen/	/ʃe.ren/

9. taula: AH2 arauaren adibide gehiago arau-katean.

AH3: afrikatuak frikari bihurtzea (ahultzea)

$$\left[\begin{array}{c} \text{KOR} \\ - \text{jarraitu} \\ + \text{laxaketa luzakorra} \end{array} \right] \rightarrow [+ \text{jarraitu}]$$

25 Adibide hau sinkronikoki aztertuz gero, konturatuko gara “zer” hitz gramatikalaren jatorrizko forma /ʃer/ dela Hernaniko hizkeran, ez /ʃer/, hitz eratorrietan beti agertzen baita /r/: /ʃe.rək/, /ʃe.rɛ.kin/, /ʃe.ri/ etab. Gure analisiaren arabera, coda silabikoan /r/ /r/ bihurtzeko euskal joeraren ondorio lexikalizatua da hau.

Arau honetan, /t͡s/ eta /t͡ʃ/ afrikatuek herskaritasuna galtzen dute —kontsonantearen zati den /t/ galtzen da²⁶— eta beren erlatibo frikatu bihurtzen dira: [s]²⁷ eta [ʃ]. Arauak ez du testuinguru zehatzik aurretik hainbat soinu eduki ditzakeelako, besteak beste, /r/, /n/, bokal bat eta, agian, /l/ ere.

/si.t͡sai.t͡ʃen/ > /si.sai.t͡ʃen/
 /p͡ʉn.t͡sa.t͡ʃu/ > /p͡ʉn.sa.t͡ʃu/
 /ar.ɖa.t͡sa/ > /ar.ɖa.sa/
 /gu.ru.t͡sa.t͡ʃe/ > /gu.ru.sa.t͡ʃe/

AH4a: herskari ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)

$$\begin{bmatrix} - \text{jarraitu} \\ - \text{ahots} \end{bmatrix} \rightarrow \begin{bmatrix} + \text{jarraitu} \\ + \text{ahots} \end{bmatrix} / [+ \text{ahots}] _$$

Datozen bi azpi-arauak (AH4a eta AH4b) asimilazioak dira berez, baina emaitza ahultzea da. Horregatik atal honetan sartu ditugu. Arau honetan, /p/ eta /t/ herskari ahostun koroariak eta /k/ herskari dortsala, bokal baten ondoren daudenean, hurbilkari ahoskabe bilakatzen dira, hots, [β], [ð] eta [ɣ].

/al.ɖa.pa/ > /al.ɖa.βa/
 /gɔ.rɔ.t͡ʃa.t͡ʃe.ɣi.t͡ʃa.rak/ > /gɔ.rɔ.t͡ʃa.ðe.ɣi.t͡ʃa.rak/
 /t͡ʃin.t͡ʃɔt͡ʃ.ku.a/ > /t͡ʃin.t͡ʃɔt͡ʃ.gu.a/²⁸

AH4b: jarraitu ahoskabeen ahostuntzea (ahultzea)

$$\begin{bmatrix} + \text{jarraitu} \\ - \text{ahots} \\ \text{DOR} \end{bmatrix} \rightarrow [+ \text{ahots}] / [- \text{konts}] _$$

AH4a arauaren aldaera honetan, /x/ —jarraitu ahoskabe dortsala— ahostundu egiten da bokal baten ostean, [ɣ] bihurtzeko. Pentsa liteke halako kontsonante dortsaletan ez ezik, beste jarraitu ahoskabe batzuetan ere gerta litekeela araua, baina euskal errepertorioan /x/

²⁶ Kontsonantearen zati bat bakarrik galtzen denez, ez da ezabaketa, ahultzea baizik.

²⁷ /s/ deskribatzeko ez dugu adieraziko +jarraitu KOR +karrankaria denik, euskal fonemetan ez baitago /θ/, +jarraitu KOR -karrankaria. Bistan denez, formuletan ekonomiari eman diogu lehentasuna.

²⁸ Adibide honetan, bigarren silaba bukaerako /t͡ʃ/ ekoizpen-akatsa da, totalka moduko bat; argi nabaritzen da grabazioa entzutean. Horregatik, adibide honetan /ɣ/ ordez /g/ egin zuen hiztunak, beraz fonetiko ulertu behar da.

eta [ɣ] dira ahostasuna trukutzen duten jarraitu bakarrik. Gaizki-ulertuak ekiditeko, zehaztasunez adierazi nahi izan dugu araua.

Hona hemen jaso dugun adibide bakarria:

/mən.ɖi.a xu̯an/ > /mən.ɖi.a ɣu̯an/

2.5. Indartzeak

IN1: /i/-ren indartzea

$$\left[\begin{array}{l} +goiko \\ -atzeko \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{l} KOR \\ +jarraitu \\ -aurreko \end{array} \right] / [-konts] _ [-konts]$$

Indartze-arau hau nahiko hedatua dago eta herriko hizkeren ezaugarri bereizgarri nabarmenetako bat da. Arau honetan /i/ bokala —silabikoa edo irristaria izan— [j] bihurtzen da bokal artean. Ez da EP1 arauarekin (28. orr.) nahastu behar.

/be̞i.ak/ > /be̞.jak/
 /ge̞i.ɔ/ > /ge̞.jɔ/²⁹
 /e̞.ɕai.ɔ/ > /e̞.tɕa.jɔ/³⁰
 /la.ɕai.a.ɣɔ/ > /la.ɕa.ja.ɣɔ/

Adibide gehiago ikusteko, zeinetan /i/ silabikoa den, arau-kateatuetara jo behar dugu:

Sakoneko forma	EZ1	IN1
/be̞l.ɖu.ra ɔ̞i.ɛ̞/	/be̞l.ɖu.ra i.ɛ̞/	/be̞l.ɖu.ra.jɛ̞/
/e̞.ɔ̞n.ɖu ɔ̞i.a/	/e̞.ɔ̞n.ɖu i.a/	/e̞.ɔ̞n.ɖu.ja/
/au̞n.ɖi.a ɔ̞i.e̞.tɛ̞.la/	/au̞n.ɖi.a i.e̞.tɛ̞.la/	/au̞n.ɖi.a.jɛ̞.tɛ̞.la/

10. taula: IN1 arauaren adibide gehiago arau-katean.

29 Adibide honetan, -ago atzizkia -o bihurtu da, hala suertatzen baita askotan arauak kateatzearen ondorioz.

30 Bigarren silabako hasieran MSIN1 araua (65. orr.) aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugun arauari eragiten.

2.6. Epentesiak

EP1: [j] sartzea (epentesia)

$$\emptyset \rightarrow \left[\begin{array}{c} KOR \\ + jarraitu \\ - aurreko \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} + goiko \\ - atzeko \end{array} \right] - [-konts]$$

Arau hau, /i/ baten eta beste bokal baten artean [j] sartzea, ez da IN1 arauarekin (27. orr.) nahastu behar; fenomeno ezberdinak baitira fonologiari dagokionez: IN1ean jada badagoen fonema bat aldatzen da, eta honetan, inondik inora ere ez dagoen soinu bat sartzen da jada badauden bi fonema bereizteko.

Hortaz, hona hemen arau honen adibide gutxi batzuk:

/bi.ɛk/	> /bi.jɛk/
/di.ɔ.su/	> /di.jɔ.su/
/ɛ.ɣi.a/	> /ɛ.ɣi.ja/
/di.fɛ.ren.t̪si ɔ.rɛ.kin/	> /di.fɛ.ren.t̪si jɔ.rɛ.kin/

Disimilazio hau bi helbururekin erabiltzen delako susmoa dugu. Alde batetik, entzuleak silabak eta haien banaketa hobeto ulertu ditzan, CV silaba-egitura errespetatuz (Hyman, 1975); baina bestetik, gaztelaniaren arau fonologikoetatik bereizteko eta bertako identitatea aldarrikatzeko. Azken joera honen adibide argiak dira azpiko bi hauek:

/kɔ.lɛ.xi.ɔ/	> /ko.lɛ.xi.jɔ/
/a.lɛ.ma.ni.a.t̪ik/	> /a.lɛ.ma.ni.ja.t̪ik/

Arau fonologikoen helburuez gehiago irakurtzeko, jo ondorioetara (28. orrian).

3. Ondorioak

3.1. Lanaren mugak

Ikerketa handia egin dugu lan honetarako, hain handia non lanerako ezarritako karaktere-muga motz geratu zaigun. Horregatik, lan nagusiko edukiak asko sintetizatu behar izan ditugu, eta fonologia-arau morfosintaktikoak eta hedakuntza mugatukoak eranskinetan jaso. Hiru atal horiez gain, beste hainbat alor ikertu ditugu, hain zuzen,

fonosemantika, arau-kateatuak³¹ eta, horien barruan, morfema eta forma ia lexikalizatuen prozesu-deskribapenak. Edonola, denbora- zein karaktere-mugarengatik ez ditugu lan honetan azaldu. Beste lan batzuetan azaldu litezke, ikerketa eginda dago eta.

3.2. Arauen gainean esatekoak

3.2.1. /ɐ/ edo /a/ bokalerako joera

Bokalen arteko prozesu fonologikoei dagokienez, azaleko egituraren ateratzen den bokala dela eta, bailarako hiztunek /ɐ/ bokalerantz jotzen dute hainbat arau fonologiko edo forma lexikalizaturen bidez, eta, kalekoek, aldiz, /a/-rantz egiten dute. DI3 eta AS3 arauak /ɐ/-joera islatzen dute, eta DI4 eta AS4 arauak, /a/ bokalerakoa. EZ3 eta EZ4 arauak ere joera hau agerian uzten dute bi bokal horiek elkartzen direnean.³²

Edonola, nahiz eta gutxiago, kaleko nagusiek ere /ɐ/-rako joera agertzen dute, baina gazteen kasuan anekdotikoa da. Adinekoen aztarna horrek pentsarazten digu /a/ erabiltzea berrikuntza bat dela, Beterriko beste hizkerek Hernaniko hizkerako ezaugarri honetan eragina izango zutela; dena dela, uste hori ustela ez dela ziurtatzeko, halako alternantzien analisi diakroniko bat egitea komeniko luke.

3.2.2. Fonologia naturalaren ikuspegitik

Ikergaiari zukua ateratzearren, azpiko taulan arau fonologikoak erabilera-helburuaren arabera bi multzo handitan sailkatu ditugu: igortzeko erraztasuna eta ulertzekoa. Izan ere, bi jarrera horiek hartu litezke hizkuntzak eraldatzean, igorleak bere buruari bidea erraztea, edo hartzailearen alde egitea. Lehenean, esfortzu artikulatorio gutxi egitea igorlearen edo ekoizlearen interesa da, eta bigarrenean, mezua ongi eta erraz entzutea, ulertzea eta prozesatzea da entzulearen interesa. Bi interesak kontrajarriak dira askotan, artikulatze-esfortzuak gutxitzeko ekoizleak joera izan dezakeelako asimilazioak, ahultzeak eta ezabaketak egiteko, baina aldi berean prozesu horiek hitzak beren sakoneko formatik urruntzen ditu eta entzuleari zailagoa suerta dakioke ekoitzitako forman hitzaren sakoneko egitura fonologikoa antzematea; horrenbestez, ondo edo gaizki ulertu ote duen zalantza sor dakioke. Pentsa daiteke entzulearen mesederako hobe dela sakoneko forma fonologikoa ez

31 Atal oso bat eskaini ez badiegu ere, zenbait adibide arau-kateatuenak dira. Ikusi 25, 23, 14, 15, 18 eta 27. orriak.

32 /bɐ.ar/ hitza joera honen adibide argia da, bailaran gehiago erabiltzen baita /bɐr/ eta kalean, /bar/.

aldatzea, baina aldaketak eginez gero, kate fonikoa era gardenean helaraziko dutenak izan beharko lirateke. Disimilazioa da horretarako prozesu apropos bat, aldamenen edo gertu dauden bi fonema berdin edo antzekoak ezberdintzeko prozesua baita. Beste prozesu lagungarri bat hiatoan dauden bi bokalen arteko epentesi kontsonantikoa egitea da, silabak ongi bereizteko aproposena den CV silaba-egitura (Hyman, 1975) bermatzen baitu. Bi bokaleko sekuentzietan bokal bat kontsonante bihurtzea (IN1), edo kontsonante hurbilkari ahostun bat herskari bihurtzea (AS2) CV silaba-egitura bermatzeko moduak izan daitezke, entzulearen aldekoak. Hori guztia xeheago jaso zuen Oñederrak (2023), besteak beste, Donegan eta Stampe-ren ekarpenetan (2009) oinarrituta.

Lanean deskribatutako arauak bi interes hauen arabera sailkatu ditugu azpiko taulan. Ekoizlearen aldeko prozesuak asimilazioak³³, ahultzeak eta ezabaketak dira, eta entzulearen aldekoak epentesiak, disimilazioak eta indartzeak. Guztira, 22 prozesu ekoizlearen aldekoak dira, eta 10 entzulearen aldekoak³⁴. Guztien artean emankorrenak EZ1, EZ2(a,b,c) eta AS1(a,b,c,d) dira, ekoizlearen aldekoak. IN1, DI1 eta EP1 ere oso emankorrak dira, horiek aldiz entzulearen aldekoak direnak.

33 Asimilazio batzuk ahultzaileak dira eta beste batzuk indartzaileak. Azken horiek, ekoizlearen zein entzulearen alde egiten dute. Horregatik, AS2 asimilazioa bi taldeetan sailkatu dugu.

34 Deskribatutako 31 arauetatik 14k CV silaba-egitura bilatzen dute. Horietatik 9 ekoizlearen aldekoak dira, eta beste 5ak entzulearen aldekoak.

Ekoizteko erraztasuna	Ulertzeko erraztasuna
AH1	DI1
AH2	DI2
AH3	DI3
AS1(a,b,c,d)	DI4
AS2	
AS3	EP1
AS3(a,b)	IN1
EZ1	
EZ2(a,b,c)	
EZ3(a,b)	
EZ4(a,b)	
EZ5(a,b)	

11. taula: Deskribatutako arauak fonologia naturalaren irizpideen arabera sailkatuta.

Arauak hiztun-profilekin alderatuz, ez dugu ikusi alde nabarmenik dagoenik arau emankorrenetan, hau da, profil guztietako hiztunengan dira oso emankorrak. Horrenbestez, bailarako eta kaleko hizkerak funtsean nahiko antzekoak direla ondorioztatu dugu, eta dauden aldeak arau ez hain emankorretan oinarritzen direla, hala ere isoglosak sortzen dituztenak. Dena den, profilen arteko alde nabariagoa da adinaren arabera geografiaren arabera baino. Generoari dagokionez, ez dugu alde aipagarriarik topatu.

Komenigarria litzateke beste metodologia bat erabiltzea arauak hiztun-profilekin xeheago lotzeko. Gainera, interesgarria iruditzen zaigu ikuspegi soziolinguistikoa txertatzea profilen arteko aldeak nondik etor litezkeen argitzeko³⁵, eta halako analisiak diakronikoki egitea ere bai.

3.2.3. Bestelakoak

Kaleko gazteen ekoizpenari erreparatuz gero, iruditu zaigu EZ5a —/i/ irristariaren ezabaketa— galtzen ari direla, zenbait hitz lexikalizatu salbu. Aldiz, EZ5b arauak —/u/ irristariarenak—, kontrako joera argia erakusten du.

35 Baliteke kaleko jende hizkera gehiagorekin harremanetan egon izana eta haien hizkera kanpoko entzuleen alde moldatu behar izana. Era berean, euskara estandarren eta herrikoaren arteko estatus kontu bat izan liteke, identitatearekin zerikusia luke horrek.

EP1 arauan azaldu dugunez, epentesia CV silaba-egitura lortzeko erabiltzeaz gain, gaztelaniaren fonologiatik urruntzeko egiten dela ondorioztatu dugu.

Bestalde, ikusi dugu hitz baten erroan kalitate berdineko bokalik ez errepikatzeko joera dagoela, halako adibide bakarra jaso baitugu, eta behin bakarrik: /l̥e.ɛn/.

Horrez gain, coda silabikoan /r/ /r/ bihurtzeko joera nabaritu dugu. Ikusi 25. oin-oharra, 25. orrian.

Prozesu fonologikoekin zerikusirik ez badute ere, fonema eta alofonoen atalean (11. orr.) bi belaunaldien soinu- eta fonema-errepertorioan aldeak daudela argitu dugu. Aurreko txistukari frikatu eta afrikatuetan dago alde deigarriena, gazteen fonemak lepokariak direlako, eta nagusiek apikariak egiteko joera dutelako. Horrez gain, [ʌ] eta [j] alofonoen belaunaldiarteko aldeaz ere mintzatu gara.

3.3. Gerora begirakoak

Hernaniko hizkerako arau erabat fonologikoak izan dira lan honetako ekarpen nabarmenenak. Haiei esker, herrikoen hizkera errazago ulertu daiteke eta onuragarria izan liteke. Esaterako, euskara estandarra i(ra)kastea, arauok lagungarri gerta litezke ikasleen zenbait arazori jatorria aurkitzeko, adibidez, inesibo plural eta mugagabea ezberdintzeko zailtasuna EZ3a arauan datzala jakitea. 15. orrian xeheago azaldu dugu bokal baten ostean /ɛ/ bokala ezabatutakoan, inesibo pluralak eta inesibo mugagabeak forma berbera hartzen dutela, hau da, pluralaren markatzaile den -e- morfema ezabatzen dela eta bi numeroetarako forma *-tan* dela.

Hemen jorratutakoez gain, beste hainbat ikerketa-bide urratu litezke. Interesgarria iruditzen zaigu aztertzea zein arau dauden guztiz hedatuak eta zeintzuk diren hautazkoak. Horri lotuta, arauak hiztun-profilekin xeheago lotuz gero, errazagoa litzateke herriko aldaerak era isolatuan deskribatzea; horretarako, aldaera diatopikoez gain, aldaera diastratikoetan sakondu beharko litzateke, generoa eta adina kontuan hartuta. Azkenik, fonologia naturalaren ildoak jorratzeko metodo egoki bat bilatzea berebizikoa litzateke, geuk

arauen agerpenak kontabilizatu baditugu ere, ez zaigulako era aproposa iruditzen³⁶, hurbilpen soil bat baizik.

Bestalde, herriko idazkera proposa liteke —nik zeharka egin dut transkripzio ortografikoetan (ikusi I. eranskina)—, eta idazkerari esker herrikoari estatusa eman liezaioke, herriko egunkarian idazkera hori erabili eta are itzulpen-automatikoko tresnei herriko hizkera irakatsi ere; horretarako, arau fonologikoak eta aurretik deskribatutako fonema zein alofonoak lagungarri gerta litezke. Gure lana hizkera ulertzeko funtsezkoa izateaz gain, beste ikerlan batzuentzako abiapuntu izan daiteke, eta horrela, GJHko 18. Helburua betetzen lagun dezake, eta 10.a ere bai, zeharka bada ere.

4. Bibliografia

18. *Helburua 2030 agendan—Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra—UPV/EHU.*

(d. g.). Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra. Berreskuratua 2025(e)ko maiatzaaren 19(e)an, hemendik:

<https://www.ehu.eus/eu/web/mho-unesco-katedra/garapen-iraunkorrerako-18.-helburua>

Aranburu, Maddi. (2016). *Bi hitz Hernaniko hizkeraren inguruan*. EHU.

Camino, Iñaki. (1999). *Goñerriko hizkera*.

Camino, Iñaki. (2015). *Oztibarreko mintzoaz eta haren lexikoaz*.

Camino, Iñaki. (2016a). *Amiküze eskualdeko heskuara*.

Camino, Iñaki. (2016b). *Zaraitzuko uskara eta Ipar Euskal Herriko berrikuntzen hedadura*.

Camino, Iñaki. (2023). *Aturrialdeko heskuararen berrikuntzen kokagune geografikoa*.

Camino, Iñaki. (2024). *Berrendiko peinatik eta Orhiko gainetik Aezkoako eleei so*.

Chomsky, Noam, & Halle, Morris. (1968). *The sound pattern of English*. Harper & Row.

36 Arauen agerpenak bere horretan kontabilizatzea ez da egokia hiztunen idiolektoak, hizketagaiak eta testuinguru diskurtsiboak arau batzuk errepikatzen eraman dezaketelako, batez ere arau morfosintaktiko-fonologikoez ari garenean.

- Donegan, Patricia, & Stampe, David. (2009). Hypotheses of Natural Phonology. *Poznań Studies in Contemporary Linguistics*, 45(1), 1–31. <https://doi.org/10.2478/v10010-009-0002-x>
- Gallastegi, Maddi. (2018). *Hitanoa taulak*. Dobera Euskara Elkarteak.
- Gaminde, Iñaki. (1997). *Gatikako euskaraz*. Gatikako Gogoz Euskara Taldea.
- Gaminde, Iñaki. (1999). *Bakio berbarik berba*. Labayru Ikastegia [u.a.].
- Gaminde, Iñaki. (2000). *Zamudio berbarik berba*. BBK.
- Gaminde, Iñaki. (2001a). *Leioa berbarik berba*. Leioako Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2001b). *Meñaka berbarik berba*. Meñakako Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2001c). *Mungia berbarik berba*. Mungiako Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2002a). *Arrieta berbarik berba*. Arrietako Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2002b). *Jatabe berbarik berba*. Jatabeko Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2003). *Zaldibar berbarik berba*. Zaldibarko Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2004a). *Berango berbarik berba*. Berangoko Udala.
- Gaminde, Iñaki. (2004b). *Bilbotarron euskararen zuzuan*. Asapala Kultur Elkarteak.
- Gaminde, Iñaki, Elgoibar, Esther, Goikoetxea, Atotz, Astobieta, Oihana, Sanz, Ziortza, & Gaminde, Jon. (2005). *Derioztarron euskara*. Derioko udala : Albia-Berri : Tximintx euskara elkarteak : Bizkaiko Foru Aldundia : Eusko Jaurlaritza.
- Gussenhoven, Carlos, & Jacobs, Haïke. (2017). *Understanding phonology* (Fourth edition). Routledge, Taylor & Francis Group.
- Hualde, José Ignacio, & Ortiz de Urbina, Jon. (2003). Segmental phonology. In *A grammar of Basque* (or. 15–65). Mouton de Gruyter.
- Hyman, Larry M. (1975). *Phonology: Theory and analysis*. Holt, Rinehart and Winston.
- Iglesias, Aitor. (2014). *Igorreko hizkeraren azterketa dialektologikoa*. UPV/EHU.
- Jauregi, Oroitz, & Oñederra, Miren Lourdes. (2015). *Euskal Fonetika- Fonologiaren Ikasketarako Gaiak*. EHUko EUSKARAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA.
- Martínez-Celdrán, Eugenio, Fernández-Planas, Ana Ma., & Carrera-Sabaté, Josefina. (2003). Castilian Spanish. *Journal of the International Phonetic Association*, 33(2), 255–259. <https://doi.org/10.1017/S0025100303001373>

- Moreno Cabrera, Juan Carlos. (2024). *Lengua, dialectos, hablas: Crítica de la dialectoideología española* (1ª edición: 2025). EditorialHojas Monfies.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2004). *Fonetika fonologia hitzez hitz*. E.H.U., Argitalpen Zerbitzua = U.P.V., Servicio Editorial.
- Oñederra, Miren Lourdes. (2023). Fonologia, fonologiak: Fonologia Naturalari buruzko gogoetak J. I. Hualderen omenez. *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, 57(1–2), 739–755. <https://doi.org/10.1387/asju.25973>
- Sarasola, Ibon. (1998). *Euskara batuaren ajeak* (3. argitaraldia). Alberdania.
- Zuazo, Koldo. (1998). Euskalkiak, gaur. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, 78. zenbakia, 191–234.
- Zuazo, Koldo. (2000). *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania.
- Zuazo, Koldo. (2006). *Deba ibarreko euskara: Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkartea.
- Zuazo, Koldo. (2008). *Euskalkiak: Euskararen dialektoak*. Elkar.
- Zuazo, Koldo. (2010). *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. (2013). *Mailopeko euskara*. UPV/EHU.
- Zuazo, Koldo. (2018). *Sarako euskara*. UPV/EHU.
- Zuazo, Koldo. (2021). *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara*. UPV/EHU.
- Zuazo, Koldo, & Goiti, Urtzi. (2016). *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko euskara*. UPV/EHU.

5. Eranskinak

I. eranskina: Transkripzioak

I.1. Sarrera

Atal honetan metodologian deskribatutako hiztunen grabazioen transkripzioak jaso ditugu. Hiru ezaugarri kontuan hartuta —bailara, adina eta generoa—, zortzi hiztun transkribatu ditugu, bakoitzetik 5 eta 10 minutu artean. Nondik norakoen gaineko xehetasun gehiago izateko, jo 4. orrira.

Transkripzio hauek ortografikoak dira, baina ez ditugu euskara estandarreko arauak bete, alde batetik analisi fonologia errazteko, eta bestetik, behin-behineko idazkera bat proposatzeko. Euskalkietan beste ortografia arau batzuk erabiltzeak eztabaidak pizten ditu, Euskaltzaindia bera horren aurka adierazi baitzen —137. Araua: "Adierazpena euskalkien erabileraz"—. Argudioetan gehiegi sakondu gabe, uste dugu euskalkietako idazkera ezberdintzea funtsezkoa izan daitekeela euskara estandarrean ortografia akatsak ekiditeko, eta ulertzeko aldaera bakoitzak bere erabilera esparrua duela.

Guk erabilitako arauetz esan beharra dugu fonologiatik gertuago kokatu ditugula, esaterako, *h*-rik ez idazten. Nabarmentzekoa da gazteen eta nagusien alternantziak —/t͡s/ eta /t͡ʃ/ esanguratsuena— bere horretan jaso ditugula, bakoitzak egiten duen moduan: gazteen /t͡s/ *tz* digrafoaz eta adinekoen /t͡ʃ/ *ts* digrafoaz. Edonola, idazkera arautzekotan, fonemei eutsiko genieke. Argi ulertu ez ditugun zatiak parentesi karratu artean markatu ditugu, bai hitz osoak, bai soinu jakinak. Letra-kolore grisezko pasarteak ez ditugu analizatu, ez dagozkielako hiztun nagusiari edo kodez aldatu dutelako (gaztelaniara). Hiztunek egindako aipuak edo hirugarrenen hitzak letra etzanez adierazi ditugu.

Elkarriketatutako hiztunen anonimotasuna bermatzeko, haien izenen ordeztu hitzki batzuk erabili ditugu, azpiko taulan jaso ditugunak:

Hizkia	Esanahia
A	Hiztun nagusia, aztertutakoa
B	Bigarren hiztuna, aztertu gabekoa (hiztun nagusiaren ezagun bat, kalean zebilena eta elkarrizketan sartu zena)
E	Elkarrizketatzailea, aztertu gabekoa

12. taula: Transkripzioetan hiztunentzako erabilitako laburdurak.

Horrez gain, haien pribatutasuna babesteko, pasarte batzuk guztiz belztu ditugu, informazio pertsonal edo pribatua dutelako.

I.2. Transkripzioak

Bailarako emakumea

Bailarako_emakumea_1.wav 7:20

Elkarrizketatzailea: [...]

A: Seme-alabak emen bizi dia, ta orren seme-alabak 'e ba[a]kite zeozer paza z[a]lla, m[i]ño ez dakite nola. T[a] beti izandu deu bata bestiak alako... zea ba, pero yo sé todo lo que pasó beai zeatuta ta geo gu... attak eta amak beak esplikatu ziaten porque un día, gure etxia zan, gure atta zan, yo diría que era un chapuzero de los buenos chapuzeros, *hombre de [muchos] oficios, pobre seguro*, pues así será, yo creo en eso, porque gure atta zan, denetako baliyo zun gizon bat zan. Pobrea? Bai, [onbra], emen goiko [redacted] eo basarri bat bada, orko semia, or jayua, [redacted], zan nere atta. Eta dena, istori guz[t]i'yau olaxe ze-zeatu zan eta, me ha cortau, cómo iba?

E: Ai ziñan kontatzen oi, e Akolan jayo zala aita, ta gero gertatu zana emen lista bat in zula batek [...]

A: A baibaibai, baibai... [...] Baño geo, geo deskubrittu nun nik dena, nik gauza [ʼ]rarua bazeola ikuste nun etxian gauza asko attu nittun [...] eun batian, geo eoser [...] obra in biar bazan'e gure atta eamate[n] zuen dena ta ze ola ta amabarjin bat elizan obra in zanian, amabarjin bat [...] emen, emen nola dao [...] zea paeta zarra, orren barrenen elizako santo zarrak erretzeko onea ekarri, ta erre[tz]en ai dala amabarjin bat, eta amabarjiñ orre[n] gure attai beiratu itte [o]men ziyon.

E: A bai?!

A: Ta esan z..., bai, jun ayek ateata [bestetai] bei. No fue capaz de quemar la virgen esa. Sabes lo que hizo? Quemó... Gañen [tzukun] guztiya, dena erre zun, ta ura in tzun utzi, baztertu, reparatu, arreglatu, pintatu ta le hizo una caja, una vitrina ta zean da [g]ure etxean, ganbaran, baño, ganbarako zea batian [...] naonek baño

aundiyogoa eongo'a, naonek jun da ori beire eote nitzan. La curiosidad esa de que kristala zea ireki niyon, artu nun, besutan artu nai, artu nun du artu nunian aidian azpiya uekua arek t'aren bandera republikanua an gordia [okigu] attak. Ta bere ze materiala ez seba eztait ze izango zan prrr, se cayó, ne anketa.

E: Bandera?

A: Bandera, attak an gordia porque si le cogen la matan, de verdad le matan e... garai yaitako ze-zeon bestela gauza eta joder ya me di cuenta, yo fui calculando y era pues no sé, ni' yoi oi pasa zanian izango nittun e... zorzi bat urte? Zazpi-zorzi urte. Te berriz'e sartu nun, amairjiñ oi kolgatu nun, no dije nada, a nadie! ez atta ta amai, anayaidi ezta ezer ere, ta ala ta geo gure attak eta amak zuen ottura bat nik ezdakit ze lenguaje dan oi, zapoizketa deitze ziyoten.

E: A, sonatze'it, sonatze'it.

A: Attu izandu'zu? [...] [onomatopeiak] bata bestiakin, guk nai zunian [gubeyek] an bagenden da ez ente- enten- gu ez enteratzeko z'esaten ai zian, biyek ola itzeite zuen.

E: Bai e?

A: Y a mí me sabía eso a cuerno quemau. Yo quería sab[...] [...] Eun batian ola ai ziala beintza[t] esan niyoten da *bai, zea-zeatik attez- o'itte ze[nun] oi gauza itsusiya da. Gu emen da zea ta bai! Guk 'e sekretuk izate'ittu, ta bai! ta esat- ta or se me escapó ta bai! Ba an ganbarako ama[e]rjiyan ipurdi[n] zelan zulun sartuta daon zea. Bida, zuri-zuri inda geldittu zien biyek. Pálidos! Ta ne kontuatu ni[z]an joder, he metido la pata. Ain koloriek ikusita, da, baño ze esaten e za, noiztik dakizu zuk oi? ta [nola] aspalditik, za zeñi esan diyozu? Ta iñoi ez. Oain guri bakarrik? Eta bai,*

[REDACTED]

[REDACTED] Ta ordun esan ziyoten bata[k] bestiai *beida, Maria, askoz obia deu oni dena esplikatzia, okerro da, iruikortua do*. Beana betik aittu nun nik umia izanda obligatuta bezela jarre- ikusi zuen been burua, [REDACTED]

[REDACTED]

[REDACTED] biñ'or ere ezta nin yo tengo esa [...] como no sepa la chica esa que yo digo de'sa historia, como no sepa esa historia y t'ha contaú así, yo aparte d'eso no no tengo, olako gauzak bai, porque yo he sido y soy. [REDACTED]

[REDACTED]

[REDACTED] Yo no vuelvo e ze nik baittut launak batzuk bizi bestiak ilda, que me han contaú secretos con la confianza de que yo no voy a repetir y soy así, he nacido así, y qué quieres, soy así, e- eta zean, eta gauz oi're nik eaman det, ezta nere senidiak 'e. Nere abetik etzien enteatu geo urtian burua: *i' ba al akiñen oi?* Anayak esate ziaten da *bai, banakiken. Ezten eze askok esan da, ez dittuk esateko mouko kontuk*. Sí, esa es historia y yo tengo pelo muy[...] aparte de eso no, no no, e [e]zan det un muero de casón gogorra, gogorra... ni uain pensatzen jartze nai[z] ta joe! Pa'... Ume batentzako

zuk bakizu zuk te geo jakin, jakin zenek bialdu zun zure atta gillotina, ta aren ondun neskame eondu naiz geo ni, or.

E: A bai?

A: Bai, peor, peor [...] fabrikan orren ondun billa bezela eltxe ba' bazan, oain berriye iña du ua botata, en esa casa h'estau yo de chacha. ¡Ahí h'estau yo de chacha! Y uno de los que esto el papel, papera oi zuna fabrikako nausiya zan.

E: Ostias, pff, ze gogorra ez?

A: Fabrikako nagusiye z[e]n, beño oi geo enteatu [ZARATA]

E: Lasai, ez preokupatu.

Bailarako gizona

Bailarako_gizona.wav 1:35

Elkarriketatzalea: Nun?

A: Jayo nitsan? [redacted] en, [redacted]. Oi do, [redacted] tik eundaberroeitamar metro 'o ola bertan, [redacted] eta fabrika sarra [redacted] kua, [...] [redacted] ta geo andik eunda- eun metro geyo geixio, antxe basarri bat aundiya, [redacted], an jayua.

E: Eta denbo guztin, esa'naet, bizitza guztian emen eondu zea?

A: Bai bai, geo emen, onea- au eosi genun ua salduta geo eosi genun bestalde emen ferreteian zean, or [redacted] bisi'a oain da nik au eosi nun etxia, pixu au, ta ementxe.

[...]

A: Bai, emen, berroeitamar urte eskondu giñala e.

E: Bai?

A: Bai, aurten- lengo sean in giñun, diciembrian, bai, abenduan saspi. [...] in giñun berroeitamar urte, bai. Xiglo erdi bat.

E: Joe! Asko ola esanda e!

A: Bueno, bai. Senek esan. Oeitasortsi urtekiñ eskondu, beatsi ittea ni[g]oala, da oain larogei.

E: Ya, eta zelebratu zenuden?

A: Bai, bai, al genuna in genun, pixkat. Al genuna in genun, bai.

E: Eta? Ze in zenuten?

A: Se in genun? Ba baskaltsea jun giñan, zeara, este Oriyoa, Tesareo, Sixario, Xixariyo deitse'yote Oriyon, jatetxe bat, arraya ta jartse'uena, bai. Bixigua ta txuleta ta jan giñun an da, ondo, ondo pasa genun, oso ondo pasa genun, bai. Bi alaba'ittu.

E: E?

A: Bi alaba.

[...]

A: T'aek biyekin [labo] jun giñen.

E: Joe, famili osua e. Etxekuak.

A: Etxekuak, etxekuak.

E: Eta, oain... oain dala gutxi emen ibili nintzan ni Sanantonyotan, eta? Zu ibillia zea, Sanantonyotan? Igual aurten ez dakit e baño.

A: Gutxi, gutxi. Erroski[y]ak eostea 'o ju'nitzan batian, erroskiyak eostea, bai bai, buelta baño oaiñ egun es. Eni[ts]an jun, es. Geo baskaiya jartsen da kosinan da pixka' gustae sa[t], bai, aitzia gustae sat sukaldian, 'xkat. Eta ala [...] nintsan da nola esdait Sanantonyok nola sian da geo alabak eta're etorr[i]tseku[a]k sian da, b'aientsako baskaiya [h]arri ta itteko ta 'ixkat eta enitsan atea Sanantonyotan, batee, 'san disutena, erroskiyak eostea.

E: Ya, bueno, ezta gutxi, or lenguan kontatu ziaten, erroskiya oyek garai batian emen ingurutik etortz' zi-, ez Ordizitik etortze zian.

A: Ordizitik.

E: Baño oain bizkaitar batzuk etortze omen dia, ez?

A: Bai, bai, oain biskaitarra' dia, oain biskaitarra' etortse'ia, bai, bai.

E: Eta? Goxuak ala're?

A: Bai, bai, bai. A[i]n tankerakuk. Lengon tan[k]erakuk, bai, bai. Etzaigu komeni asko baño, beti... *ya que* pasaisua itteko, urten- urtian beingo pasaisua bai itxeko, ondo, ondo, gosuak, bai.

E: Eta ezpada oain, oain imajinatz'et ezetz maño zu gaztetan ibiliko ziñen emengo festetan ez, 'o?

A: Bai, bai, hombre, karo, jode... geyegi 'g[ua]l. Geyegi, bai, bai, bai.

E: Ta ze, z'eote zan ordun? Erromeiya ta ola eongo zan o ze'ote zan?

A: Oaingo moun, oaingo moun. Bai, errikirolak zeoze jartse san, da geo, ge' beste gaus batsuk prepaatse sittuen ordun, ordun ixate san, Xanantoniyo eunian eto[r] [ts]e san kanpotik [h]endia bixkat meseta ta sea eta geo bersolayak aitu ta geo etortse sien askoj, baskaiy'artuta ta ola, da or gora iyotse sian, or goiko soruun da jarri ta an baskaldu, bersolayak aittu erdin: mesa entsun, bersolayak aittu ta geo or gora jun da etxetik eka[r]tse suen baskaiya askok, ta baskaldu an da geo atxaldian berris jetxi ta kafia 'o'la artu ta berris bersolaya' aittu da oñes jute si[e]n.

E: A bai?

A: Oñez, hombre, gara- gara'yaitan etseon kotxeik eta seaik [...]

E: Ez? Ze garaitaz ai zea zu itze'iten ba?

A: Joe, esate'isu' ba nik oan dala, ni oain ai- ai nitsan esaten ba oan dala, b- irurogeitamar bat urteo kontua, ni[k] amar bat urte nittula o ola o dozen'at urte nittula, ta ordun eseon kotxeik eta motoik, osa oi' geostik asi sian, polliki-polliki, kotxia isango sun ba, fabrika do or [redacted]n, [redacted]ko fabrika[k]o nausiyak, kotxe sar bat, gasojenuakin! Bai, gasojenuakin tzun, eta... [uo]xe, or kotxia, ta geo bestia, bestiak kotxia, kotxia, n- neuk berandugo oik ekarri suenek geo, [...] geruo, ta kamiona bat [ue] egurrakin des- egur lanian seatse sianak, dedikatse sianak or, Paoakua'[b]eta, ta aik kamioya, kamioi bat, kamioi koxkor bat, Txesong beselao trailerrak eta ola sea e, bos toneladako 'lako sea *carga maxima cinco toneladas*, eta olakon bat, ta geo kotxia ekarri suen aik 'e baño beandugobo asi zan te beandugo, ta nik [...] jayotsetik oi esautu nun kotxia [redacted]kua, fabrikako nausiyana, 'san disutena, gasojenuakin. Ta geora in tsioten gasojenua kendu ta gasolina jarri, bai, sioten [...] seari, kotxiari, ta denboa askun eon san kotxi ua or, denbo'asko, urte asko. Eta, geo, gañekun [...] geo asi sian emen ya bisikletak, bisikletak e giñun, bisikleta sar batsuk, es sea oan beselako bisikleta sea piñoiya[k] sea kanbiatu ta sea ba aldaba aundina seatseko ta, aldap'aundik jetxi bisiketatik eta oñes asko, geo aldapa berako jarri gañian da segi, berris 'e bai tipu orta bai. Ordun geo asi sian nik- motuak, lenbisiko Bepak eo, moto Guci ta Bespa ta oik Lanbreta ta oik asi sianeako nik isango nittun ba ogei bat urte aldian, amabost o'la eo oeita urte eo ola, ordun asi sian bisikletak ebai obiak eta danak. Sea emendik Hernani erriya urruti seon ordun, bisikleta sarren bat edo bestela oñes, osa.

Bailarako mutila

Bailarako_mutila.wav 0:12

A: Jo, aurrekun enteatu niyun, buo, gue 'npresa eon tzan be 'unian e huelgan, ta bidiyuk e iyota zeudek interneten, ta propiyo oik ikusteko jarri niun, ta esate'it, txorriyak bakarrik aitze izan.

Elkarrizketatzailea: Bai?

A: Bai, propiyo bolumena igota aber z'esate zun, zea ataz' zan, gizonezko bat eta emakumezko bat ta ezin, ezin ulertu.

E: Ez e?

A: Ez.

E: Ze, dena zaratako [...]

A: Dena txoriya', txoriya.

E: Txoiyak zian gañea? A. Ta huelgan do?

A: Ez, bukatu zun.

E: Huelgan eon da.

A: Eon tzan.

E: Ta zu eondu zea huelgan ere?

A: Ez, ze bakik ze pasa zan? [I]n'in'iun sartu, ta andikan... bi astea baño lenuo ya huelgan jarri zian. Ta neonek 'e seuru ez nekin ayeka batetik zeatikan jartze zian, da aparte eorrek pentxatu e bi laun kontaatze zittuzu berrik ta sartu bezela ya huelgan jartze'y[e] ba, kalea juateko boleto dexente irabazte'ittuzu [...]

E: Bai bai bai, [...], ez igual obeto, ze bestela...

A: Orreatik. Ta [...] jarri ezkeo zeozergatik iual jarriko nintzae, baño... bee 'gunian beintzat...

E: Eta oain konpondu'ituzte ya?

A: [...] Ba akordio batea alleitu zian ta gaur dakate, buo gaur ez, baño laixter e eukiko'ue berriz 'e akordio orren bukaera ta geo e berriz 'e adostu in bearko'ue, [...]

E: A bale, bale, ta z'eskatze zuten ba?

A: Eztzakit, langile duintasuna ta soldata iyoera ta oi dena.

E: Ya, betiko gauzak ez?

A: Betiko gauzak. [(txakurrari:) tx, bale!]

E: Baldintzak obetzea ta betiko... tipikoa.

A: Bai.

E: Ya. Baño [redacted] en berez baldintza onak eote'a ez? O ze?

A: Bai. Hombre, sartu ni[n]tzanian bertan obie' ze[r]en e ze sartu bezela e genekaken orduerdiko marjena, bai gorabera, ik [...] imajinatu seitan sartu bearr'akak lanea ez? Ba deskuidun eunen batian bakak, e seyak laurdengutxi, bosterditan sartzia, ta geo ordu diferentzi yorrekin ateatzia ere bai.

E: A bai e?

A: Bai. O deskuidun seitan eziñ aizela alleitu ba trafikun zeoze euki'ekelako,

orduerdi beandu alleitu aiz? I sartze aiz orduerdi beanduxio, eorren lana itt'ek, ta lana bukatuta balinbakak geo orduerdi beanduxio ta iñork eztik ezer esaten. Oain kendu'ittek oi ta jarri'ue ordulaurdeneko marjena.

E: A, ze, jendia tranpa ite zulako?

A: Bai, betikua. Jende asko zeon igual bostetan sartze zana lanea, ta igual ordubatetako martxa. Ta deskuidun igual txoakein bat konpondu biarra ta enkargatu e, *Pepito nun dao [...]*? Ta *martxa in du!* Ta *nola martxa in dula?* Ta *bai bai bai, bostetan sartu ta ya... ordubate[t]ako martxa*. Da karo, orreatik azkenian ya jendiai muturra berotu zi[z]ayon ta orren ondorioz asi zian ba arauak eta zorrotzagua' jartzen.

E: Ya, aer, normala're e. Jendia aste bazaizu aarra jotzen ta nai duna iten...

A: Eske jendia laostia 'ek i, ik eskua emate'yo[k] ta besua euste'ittek.

E: Bai, oi egia da, oi askotan... Ni' bai pentsatz'et askotan ba beti aitze gea esaten, o aitze'a jendia esaten, *langile eskubideak ezdakizer ezdakizer*, ta alde batetik bai, osa oi bai, osa argi do. Baño beste batzutan esat'ezu... zuk ere...

A: Zeozerren partetik jarri.

E: Zure partetik in, gauzak ondo in, txukun in. Gero beste gauza bat da gaixki tratatze baizute edo baldintza' txarra' balinbaia ta oi guztia, ba zu gaixki eotea pues ulertz'et, baño azkenian pf, aer kontratu bat da ta bi aldetarako kontratua da.

A: Jendia' aproetxatu itte'u, ta gu gatzik uste'it lareun bat laun, ta lareun oitatiek ya naikoa'ittu lau tokatze' ola aldrebes xamararak, denak areagotze ikusteko. Naikua 'u, pensatu. Baño oi denian e! Emen eozein gremiyotan baten fama txarra denek emate'u. Euskaldunok zer gea? Etarrak. Bestiak zer? Au, [...], ta geo bakik, denetik zio, denian bezela.

E: Bai, oi egia'a, beti beti beti, toki guztitan toki, osa... Lengan o aitu nintzan batekin izketan oi ba, e azkenean toki guztitan daola jende txarra. [...]

A: Ta ona baño geyo e, ona baño geyo.

E: Ona baño geyo txarra!? Zuk uste?

A: Dudik 'be. Bai. Ik persona'at ona aurkitzeko zenbat txarra pasa biar dek?

E: Bueno oi egia da [PARRA], or arrazoi zekak bai.

A: T[a]'oi kuriosua 'a e baño oi izango'a gizakiyen naturaleza bea, asko gaixtu diala.

E: Bai e?

A: Ni' uste ba[y]letz. Ze aber asko itzeite'u askotan ttiki- e umia' ttikiya' 'ienian da ondo eakutxi ezkeo onak ateatze'yela tabar tabar, ta bai ayeka ortatik arrazoi deu, baño ni' ezautze' jendia ola, gurasuk itxurazko' diana', ta seme-alabak aldrebesak atea 'ienak. Ta ortan 'e... ba igual ez jenetikak baño beste faktoren bat eongo'a zeatikan.

E: Bai, bai igual kontra itea erakutsi 'zutenai ta... ya.

A: Bai, da eorrentzako denboa artzia, bakarrik eoteko ta, bai. Bai bai. Ni okin (txakurrekin) ibiltze naizen bezela, ok artu ta mendia juan da... ya batenbat gurutatze balinbaek, lastima, baño...

E: A, zeba?

A: Ez, sinmas. Ori dek netzako mom- momento cen, mendia [g]uan da zakurrakin ibili. Pua! Launtze ziaak burua argi eukitzen... asko e! Ikearri.

E: Meditatzeko bezela ez? [...]

A: Asko. Netzako'i dek meditación. Jute nak ta izerdiya ta'ena botz'ek baño bueltako zakak burua... despejatuta ta gauzak pensatzeko're oso garbi ikuste'zkit. Igual eun bat aldrebasa euki'ekela o... au ta ua ta pasa[z'] zait ta buelta emat'et ta dena bee token ordenatuta geatz'ek ta... o netzako beintzat dek esencial.

E: Oy'earra da, oi eukitzea. Ze zorte ona ez? Ze ondo, txakurrak eukitzea ta gañea, ondo moldatze zea ikuste'anez, ez?

A: Zakurra nekin? Biarko! Bai bai.

E: Baño jator-jatorrak dia.

A: Bai, oso goxuk dia. Geo [...] zea diala, alikate xamarrek baño bueno.

E: Alikate xamarrek?

A: Bai.

E: Oi zer da?

A: Zea barra duela desberdiña. Barra o, bai. [...] kanpotik ikuste'ittuk ola txakur bat bezala 'ño, barrut'ittuk... otxua o azkonarrak bezela. Zakatek mentalidade aldrebesea... auk? Bai. Raza au dek... ola pintzakin artzeko moun e. Ez balinbaakak os'ondo pentsatuta naekela zakur auk euki igual arrastuak billatzeko o droga billatzeko olakon bat, ez euki.

E: Ez e? Ze bestela jun ite zaie ta nai dutena ite'ute ta...

A: Bai, ta aparte biar due kirol asko, asko asko asko. Ik pensatu nik eunero ibiltze'ittutela ta ez ola lotuta emen (herrian) pasiatzen: mendia [g]uan da libre ibili ta... Hombre, etziet uzten e igual oso urrutia juten o, an- beste animalii seika ibiltzen, baño esa'naet, ejertziziyo asko itte'ue, t'asko erretze'ue t'ala're pf, auk enkabronatu ite'ye ezpaittuzu ibiltzen asko, bai bai. Zeatu ite'y[e], asalbajatu.

Bailarako neska

Bailarako_neska_1.wav 0:24

A: Bai, ba, bai. Arek bai, euki zun den[p]or'at ta oañ ebai nik uste asko... igual euskeraz asko ingo'u baño, baño bai, oaindikan... nik 'e bazkat erderakadak eta itzak erdera' sartze'ittut amarnaka, baño arek bai askoz zeagoa zula.

Elkarrizketatzailea: Bai [...]

A: Baño ua izango'a laroeitamaseikoa, bai.

E: Eske alde aundina netzako erdera edo sartzean ez da netzako ainbeste itza sartz'ezun, erdeekada sartz'ezun baizik eta egiturak ta. Zu ya [...] aste bazea gaztelazko egiturakin, *zeatik esan dit ezdakize in bar detela*.

A: Baño oi nik asko ikust'et Instagramen euskeraz atatze zaiten dena, igual e ezakit nunguk izango dian baño, bai esaldik itte'ittue, osa euskeraz ondo itzeitte'ue, itzak eta naiko ondo zea itte'ittue, ibiltze'ittue, baño geo, ikust'et e esaldi[e]n ordenak erderakok diala. Osa nik in detena bizitza guztin, euskeraz pentsatu ta traduzittu ta e esaldie euskeraz bezela bota erderaz, arrebes itte'ue ['ain]. Jende asko ikusi'et Instagramen ola.

E: A bai e?

A: Bai, bai, bai. Bai. Ta igual e mitiko oain podkastak eta olako zeak asko ikust'et oi.

E: Olakotan ere? Podkastetan da ola.

A: Bai, ikust'et bai.

E: Bai e? Osake gaztelera baño euskerazko itzekin. Basicamente.

A: Oi da, oi da. Esat'etela: *baño esaldiya bai arrebes esana gauza*, osa, bai. Bai, eztakit. Ta oi- fijatu naiz. Ta e aber gaztiak [dianean dian] ebai. Enaiz zarra ni baño.

E: Ze urtekoa zea ba?

A: E laroeitamaika. Oeita... 'mairu.

E: E?

A: Oeitamairu.

E: Oeitamairu.

A: Baño bai oi ikust'etela. Esaldik diferente. Bai, oi bai.

[...]

Bailarako_neska_1.wav 2:55

A: Ta guk Ereñozun bai danetik ibiltze geala elkarrekin. Osa gaztiak, zarrak, ertañak... Baietz, Amaia?

B: Egiya.

A: Baietz? Ordun-

E: Zu're Ereñozukoa?

B: Nik Eñozun biz'izandu naiz amazapi urte.

E: Ordun bai, Eñotzukua.

A: Ez ez ez.

E: Ez?

B: Alaba bai. Ni lasartearra naiz.

A: Oi da.

B: Alaba bai da eñotzuarra.

A: Alaba bai. Oi, batzuk badaude Ereñozun damazkitenak toa la vida t'esate'ue: [...]

De Ereñozu se nace, no se hace.

E: A bai?

A: Bai bai bai bai. Ta oi egiya da. Naiz ta ogeitamar euki, ogeitamar urt'eaman, ezta...

B: Nere bikotia izan tzana, an bizi da baño [...]koa da.

A: Oi da, oi da.

B: Eta os'ondo moldatu'a e.

A: Bai.

E: Nik ezautz'et beste bat, e Alex, kanariarra.

[...]

Bailarako_neska_1.wav 4:37

A: Goizian itt'et lana zortzitatik ordubatea, eta atxaldian irutatik zazpita. Ta aparte dakat josteko proiektu bat.

E: A bai?

A: Bai. Ordun karo, e ezta kat denborik ez Sanjuanak, ez familiya, ez ezer.

E: Lana ta projektua ez? Lana ta zure lana.

A: Oi da.

E: Bai e? Ta josten ibiltze zea? Ze jost'ezu ba?

A: Ba motxilak, bolsak, e danetik. Umiantzako baberuk, gauzak, bai.

E: Qué wapo, no?

A: Bueno, bai. Oain azoka ba' 'akat illan ogeitabostian, eta [g]aro, pf.

E: Ta in in bar dezu edo?

A: Klaro. Gauzak prepatu in ber dia, jendia[k] gauzak eskatzen seitze'u, e pff, osa... Goizeko seitan jeiki ta goizeko ordubatarte. Lanian ez baldinbana[o] josten no, ta joste' ez balinba[n]o lanian nao. Osa bai, nao...

E: Eta gustoa?

A: Bai, bai.

E: Bai, bueno!

A: Z'esan bar det pa. Bai, bai.

E: Bueno, auskalo.

A: Bai bai. Gaur ya lasayo e. Ostia, atzo ta eaneun, nik esan ba[r] nun, bua, eske pf... Eunen batian balkoitik tiako naiz, lenengo pixun- pixun bizi gea oain, ordun pf, eztet miñ aundiik artuko baño bai bai, botatzeko moun pfff.

E: Igual lan asko?

A: Bai, bai. Bai. Bai. Ta ezin alleituik eta pf. Baño bueno. Dena pasatze'a, ordun...

E: Bai.

A: Dana pasa itte'a, oi're pasako da.

E: Bai, seuro baietz.

A: Ta oixe. Gañea uain oporrak artze'ittugu lanian ebai abuztuako 'rdun ya jende geyo muitzen ai da... Gauza geyo itten ai dia, ordun... bai.

E: Ta ordun lan gutxio? Geroz ta lan gutxio, o ze? O juxtu kontrakoa?

A: Goize- E lanian-lanian, enpresan...

E: A! Zu- zu ai ziñan jostekoaz, ez? Edo zertaz?

A: Ez, bestiaz. Klaro, oporrak no[lla] artze'ittugun, jendia geyo muite'a. Bai pelukeriako, bai... gauzek- gauzak aurreatzen jute'a.

E: A! Orreatik, bale bale bale bale bale.

A: Bai. Ordun oain ya muimentu geyo aste'a, o'n denboa gutxio 'akat josteko! [...] Goizeko ama- osa gaueko amabik eta ni oaindik josten ai naiz!

E: Bai? Ostias e. Tope, ez?

A: Pf, bai. Ezertako denboik pe 'zertako.

Bailarako_neska_2.wav

A: Azkuria aste zait, ta granok atatz' zaizkian e, bai bai.

E: Ta ez da krema kontua?

A: Ikusten?

E: A bai! Txuri- txuritxo oyek? Ala!

A: Ta pf... gaixki.

E: Jo, ba naiko moreno zaude, ez, alare?

A: Ya baño naigabe e. Osa itzaletik itzalea ibiltze naiz, ezin det euzkitan eon. Settun oartz'etelako koloria e.

E: Ya ya ya.

A: Berez itzala... denbo guztin itzalian nao.

E: [...]

A: Bai. Eske taberna... osa beti ostalaritzan in det lana.

E: A bale!

A: Oain dela bi urte arte ustet? O septiembrian bi urte? Osa septiembrian iru urte? No sé, eztakit, txarra naiz, oso txarra naiz gauza oitako. Ta ite nun lana azkeneko [REDACTED]n. Ta or [e]ondu nitzan lanian, ta geo ortik pa...

E: Joe earrak bertako tortillak e.

A: Nazkatua bukatz'ezu!

E: Nazkatua [PARRAK]!

A: Hambre! Eun guztiya tortilla iguala bueltaka, pf. Usaya bakarrik ya [...]

E: U... Ya, netzako Sanjuanetan e. Sanjuanetan gaupasan...

A: Ixo, ixo. Uf! De la que me libre, uf! alde in nunian ortik.

E: Ze zeon, kriston lan pillak? [...]

A: Bai, karo, ta beti bakarrik.

E: Beti bakarrik!?

A: Bai. Sanjuanetan o sardo tenporada o ez balinbazan, of. Beti [...]ko nausiya o ni. Fff.. esk'ezin det e, bua!

[...]

Kaleko emakumea

Kaleko_emakumea_1.mp3

Elkarriketatzalea: [...] eta pixkat lotuta edo dantzakin asi ezkeo, ez al tzan iñorr'e bijilatzen eoten? Apaiza zala o...

A: Apaiza es

E: Emakumen bat edo....

A: Ua 'e be-beti kontu kontari, gure-gurasoaidi, ni dantza... bea, se toka- se gertatu sisaiten: ni[g] izango nittun amabost urte? Amabost amaseyea. Eta ni dantza orduntxe aste zian usten con chicos esate suten besela, eta goatze naiz nere ama klaro no- denda nola giñun, [beraxe] pasa [ziyoe] porque bet'isate sian ingurun, [lepo losuta] ta gurasuak... Bai, baibai, alaxe ibiltse zian. Eta urrungo'gunian basakin.

E: Zeñekin ibili ziñen?

A: Butil batek- mutilla[e]kin dantzatu nula. Eta nik, nei esan tziaten baño klaro edadia're banaukan eta bueno e brfff etzien gustatu baño tira ta [PARRAK]. Urrungo igandian ai nitzan mutil batekin dantzatzen, ta ser da? Nere aita or lepua luse-luse inda, da[n]tzatokin aisu. Utzi in nun mu[t]illa ta alde in korrika. Artu nun sustuakin. Utzi in nun plandatuta nik! Ta geo ba e[tz]an eser gertatu larririk. Ya ordueskeos utsi siaten. Basakaten surumuruakin, juate sisayon jendia surumurrua baseon dan[ts]a itte nula ta b[æ] auskalo beak ikusi naiko suten o.

E: Zeiñ eote zan or?

A: Ze- auskalo! Bai Hernaniko mutil bat san ni goatse niz ya bida il tsan lengo urtian. Eta... bueno ai ni' ikusi nunian nolako inpresiyoa plas! plantatuta utzi ta alde in nun korrika. Bai.

E: Ama...

A: Bai [PARRA]. Olaxe.

E: Etxe aurrekua zan edo ikusi naikozun.

A: Estakit, estet uste, [...] alde ortati' baño gutxigorabera ba sem- mutilla san ba bai porque sintzoa jotz'ezu osa famili txintxo-tx-gua besteik gabe, onekua es, txintxo isatia. Gur'etxian...

E: Ta orduan zintzo izatia zer tzan?

A: A ba... ba estakit. E ba e moskorretan es ibiltzia o... nik eztait zeri 'mango tziyoten garrantziya porque bakisu garai artan gausa batzuk gaur egun ainbeste inportantzik ez duenai geyegi emate tziyoten eta berris balore geyo daukaten gausaidi igual bastarrea utzita, oi'[e] baseon.

E: Langille izatia ta ba al tzan zintzoa izatia?

A: Bai, oi bai, bai [...] Langillia bear tzun bai, langillia oixe bai printzipal, principala. Oso langillia ta etxesalia ta olako istorik.

Kaleko_emarkumea_2.mp3

A: [...] Ogeitamaseyian gerra etorri sanian ni' bi urte nittun baño ni ya goatze naiz ya 'sango'isut berrogeitikan s'esango'isut nik berrogeita sortsi o berrogeitas- a berroneita sei edo orrela ba nik isango nittun amabi bat urte, berrogeita seyian? Eta garai artan ba gerra ondoren san eskasiy'aundiya, bai. Ni[re] lana itte nun dendan osa laundu aittei ba seatikan [...] eskolatik aterata eta suk esaten [diosuse] bisitza seon ba seuden fabrikak. Eta jendiak isate sian re-rrelebuak ta sortsitatik amabita asko. Ordun sortzietatik amabita itte zun jendia', gero jo[ts]e si[tt]usten sirenak enpresetan eta danak ateratze dien, or betik gora etortzen zian Kalenausi gora, Florida aldetikan nol'an tzauden enpresa asko ni goatse naiz, oi Orbegozo 'gin baño leen ere basian or enpresak eta or etor[ts]e sian goiti' bera jendia etortse san amabitan gora iyo ta ordubataterditaldien ya berriro enpresetara, ordubitati' seita isaten dan. Gerostik ya aldatu sian sartu san gau[a]ko errelebua ta sortzi ordu zuzenian eta orrela, baño [oreri]ko garaietan ola[s]e isate san.

E: Kanpotikan ere jende asko etorriko zen...

A: Bai baño oi gero asi san, ba laixter, bai orti' laixter ya, asi san bertako emigraziyua, porque nik esautu de[d] Hernani bi kale...

Beste batek: bueno

A: agur!

A: eta gero cona au dana baratza' zi[æ]n: baratza, bi kale ta gero ya gañ[o]ntzekua emen oain dago Leokadisti ta oi, oi or tzeon, or zaukaten Adarragatarrrak txokolaotaria bat, e. Eta gañ[o]ntzekua dana san or pixka' berroxio zakaten zea, Gorrotxadegitarrrak sakaten saardoa itteko... tolare bat sakaten or Gorrotxategitarrrak. Eta gero dana selaya' sian, emen 'e fabrika bat baseon, e Kurk-ale san gerra garayian etorri san aleman bat eta emen jarri sun punto- puntosko fabrika bat, eitte situen jerseak eta orrela. Baño au dana san selaya, baratzak tzien.

Kaleko gizona

Kaleko_gizona_1.mp3 0:09

Elkarriketatzalea: [...] Tolare bat zenuten hemen kalia? Edo geyo'rebai

A: Tolarea bat, tolarea bat. Saardotegi- bueno ni[g] bi bakarrik ezautu nittun. Baño nere birattonak egin zittun asko. Nee anayak esate zian amasaspi basarri egin zittula, ez eosi, amasaspi. Ta famatua' gañea. Bat Caldundegi, bestia Moko, da ust'et, bueno, eme[n]go p[e]lla bat, bai, da or tolarea genun oso, naiko modernua ordun e. Nik – nik esautu det beti, [...] zaukan prensa, saukan or ardatza, ardaza Alemaniyatik ekarrita, bai, ta goyen, sea sagarra ta karga, karga zan sei saku. Da [ni'] askotan iyo det area, bueno, geyo jan e, an ite genun ba txalakak eta itte 'zate zian da gu an ibiltze giñan, ta ordun gañea or beyen sea beyen jarri bear suten or sutabeak [utz], sutabeak, egurresko sutabeak best[a]lla kargakin geo sulo'ateti' *iuu* atatze zan da geo makiña bat *kkg* txikitze sun da apartatse sun da or gero andikan bueno, prentsa, [...] aspin, biiian segoen kupela bat da gero or kotxe txiki batekin, kotxe- ni kotxekin da [...] kupela *este...* bo[k]illak eta bete sardoteya or Seurienea da Kantoi, oik daude Seurienea da uain da Aralar taberna, eta Kantoi Aker, oi' biyak. Ta gu' genun or epoka artan Gipuskoako kupel aundina, amalau milla litro. Ta nere attak kontatse sun, oi eun batian saldu zan aste batian, txutxean ez? Txotxian.

E: Aste batian saldu zan!

A: Bai, aste batian saldu bai bai bai bai.

Kaleko_gizona_2.mp3

A: Nere birrattona kontrabandista san, len kontrabandista ezan uain bezalakoak baño [PARRA] da Andoañen jayua ta andregaya or Baxkardo [...] basarriyan o etxean an-angua san da juan tzan berarengana aber noiz [...] eskonduko zian, eta arek esan su[n] Ana Battitta, *es es, ni[k] zurekin enais eskodunko espadesu ofisio berri bat arzen, zuk, ni[g] enaiz kontrabandista batekin eskonduko*. Ta ordun erabaki sun konfitero egitea: konfitero epoka artan arremán andiya saukan elisakin, ta esuten iten etzuten bakarrik e pastak eta pastelak eta egiten, baita ere kandelak eta [...] eta oi' d[e]nak. Da ni goatze nai nere atta nola egite sittun kandelak, [...] osa nere birramonan billoba, jarze zun aro bat, ango zintziltzek- andik zintziltze – zintzilikatze zian, *este* metxa. Aspin jarze zan o[n]tzi ondi bat da an dana bueno jartse sun argitzaiya. Argitzaiya ola ta bien sua egite suten. Eta artze zun ontsi bat o ya [...] *jesus!* Esa[n]go't [...] urtutzen ziranean artze zun [...] ta banaka-banaka bakoitzei ttanttoka bota ta ua ttanttua sijuan metxan [onomatopeia] ta buelta ta buelta ta pasatze sittun orduak. Bes- ortarako beso fuertea izan bear zenun da, da onena san nire atta, Pepe, Pepe, bai. Bueno.

Kaleko_gizona_3.mp3

A: Ameriketan lanian ibili nitzan bost urte, bai. [PARRA] [...] gero askenian bukatu nun irakasle.

E: Nolz jun ziñen area lanea?

A: Ni lanian ib- eon nintzan lenbizi koperatiba batian, or Matzerreka, len Bergaran tzegoen. Eta gero... oain Antzuola dago. [...] Baño nik an oso politta zan baño diru gutxi irabazte nun ta gañea gutxiyo emate siaten. [...] ordun karo esate sian- ni' pentsatze nun aorratzen ai nintzala da... baña gaixki *osa*, 'san nola esango nion, bueno esin da, oi esin da kontatu [...] Bueno juan nitzan ordun juan nintzan CAFen oso ondo, nere gustoko lana zan. E ni- buo karo bolitta zan Espaye gustiya bisitatze nula baño altzairu manganesoa [...] ixketan ixilik [...] da au komeni da ola t'abar ta baño ez ezan nere gustokoa ta, ordun sortu sisaidan Ameriketa joatea: *La Republica Dominicana*, Santo Domingoa. Da bi alaba nittun, andria ta bi alabak artu ta ara juan nintzen. An bai ondo lanian, bai. Ni[k] [...] egiturak eta kalkulatzan, [n n]aukan ekipo bat da ongo jendea 'so [...]. Da an pase nittun bost urte. Ta bere bi alabak, ordun batek iru urte zittun ta bestiak bost, [REDACTED] bat udaletxian lan egiten duna ta bestia or klas- irakasle, or, ingeniero teknikotan. Bueno ordun, iru t- iru ta bost urte [...], or kolejiyo katoliko batean monjak zien, antxe sartu[n] da nik kotxes ayengana juan bear, 'torri eske an beste bisimodua 'a. [...] Da ni be[t]i jun da etorri ta juate nitzan da eun batian, eguardin, juaten- juan nitzan ayen billa ta or etortzen dia biyak monja batekin: *Hola, hola, que tal*. Ta esate'i': *Qué tal estás Manolo? Nola, Manolo?* Ni[k] arrittuta. *Nol- Ta [esarte nasus?]* esan nien da 'me, karo, *nik Hernanikoa naiz. O esautte'isut? Nik Agirre*. Bueno bea Hermana Arantxa san, baño isenes Pepi, Pepita. Ta *ñññ bai, or Ramon Amerikanon lengusua naiz. U! Ramon Amerikano?* Da *Ui!* Ordun da nik enitzan konturatzen da *bai ola ta aquel día [...] si t'he servido más chiquitos*. [...] osa askotan laguntzeagatik oben Amerikanon, omen emen uain Portalondokua nola dakate? Ordun taberna segoen, e! Oi isen asko[is] gañea isate sittun: Bar Dolores, Inaxioenea, Amerikano daneta[t]ik, ta *[onomatopeiak] aa!* ordun bai kontua[t]u nintzan *ori jayo ta [...]* Len Porto Ricon izan tzan, an Santo Domingon bañ'obeto, an beroa, bueno.

Kaleko mutila

Kaleko_mutila_2.m4a 0:13

Elkarrizketatzailea: Zemuz bizitzen ola erri berri batian?

A: Osondo lasaia , ni[k] beti gustoko izan det erri txiki batian bizitzea, zen, ba ezdakit egite dezu zure egunerokoa ta gero ez dakazu, nik jende faltxua deitze'yot, edo, ez faltxua izat[e]atik literalki baizik eta ba azkene[a]n erri aundi batian bizi balin bazea, inguruko jendeai etzayo inporta're zure bizi baldintzak o zemuz zauden zu edo olako gauzak. Ta erri txiki batean azkenean gertukogoa iruitz' zait dala oi guztia, ta lasayago bizitze'a, eztakazu denbora guztin jendi[a] ingurutikan edo, ta nik oi zeeze asko...

E: estimatz'ezu ez?

A: Asko estimatz'etena.

E: Ya ya ya. 'ke gañea zu Sorian ibillia ta, ez? Bueno, Sorian? Sorian zan?

A: Bai, Sorian, erri txiki batean, ogei biztanleko erri bat.

E: [PARRA] oi bai txikia e?

A: Or sei illabete pasa nitun, iru illabete COVIDean atea gabe.

E: Bai?

A: ... erriti[k]an pasa nitun, bai. Ta oso gustora, gero txoke bat izan zan berriz ere, erri edo iri aundi batea itzultzea. Iru illabete ta gero irten giñen, pues oi, konprak itea da ola. Eta pf, pasada bat izan tzan, ainbeste jende t'ainbeste kotxe, ta ezi[tz]aiten bate gustatu.

E: Ya, ya oituta ango, bakartasun orta edo.

A: Aber, bakartasuna pues ezan guztizko bakartasuna baña bai, osa nai nunian bakarrik neon ta etzan emen bezala irte[t]en zeala kalera ta denbora guztin jende'agola, an ez, an normalean etzan [i]ñor eoten kal[e]an.

E: Ya, yaya.

A: T'atxaldeko irutan o lautan udaran adibiez ezta're ezta eon [i]ñor eoten ze kriston beroa ite'u ta jendia ateatze'a, osa siesta[n] botatzen geatze'ala.

E: A bai e? Ainbesteko berua ite'u an, nabaitze'a? [...]

A: Bai, bai, nabaitze'a, Nafarron ebai oi nabaitze'a, ne aita esate zian adibiez, beayek gaztetan edo umetan iruretatik bosteta etzin ziala atea etxetikan, siesta botatze zutelako jende elduek zen bazekiten ze bero klase ite zun, da garai oi justo bazkaltzeko ordutikan atxaldeko bostak arte eo pixkat lentxio arte, eguzkiak tope emate'u ta ordun ba eztu pena merezi or egoteak. Udarán toki oyetan geyo merezi'u ba goizean goiz irtetea edo ya gau[e]n, gaua iristen ai dan[...][n] [...]

E: Karo karo, ya eske bestela jo ite'izu kriston pila ez? Beruak

A: Bai ta eztu pena merezi

E: Ez ez. Batez

A: [...] gero atatze zea, gutxio ['rdaindu] it'ezu lanian.

E: Ya, eztezu [...]

A: Ta lan, bai, landa eremuan ebai ezdakit regatzeko balin baa ebai beti esate'a goizetan dala ona regatzea goizian goiz, o [b]estela gaupartian zen bestela egos'ite dia landareak.

E: Ya, ya. Buo ta zuk ortaz bakizu ere ez? Buo ikasi zenun ori ez?

A: Ni' ikas'in'un b[e]ño utz'in'un COVIDa etorri zan[e]an ze[n] enun'ai ikasi ordenagailuz. Ni[k] presentzialki nai nun ikasi.

E: Normal, eske gañea olako lan ez? Olako... ikasketa bat.

A: Bai, nekazaitza t'abel[tz]aintz'asi nintzen.

E: Oixe.

A: Ta justo COVIDa etorri zan da jun ni[n]tzan Soriara ps egurra itea. Arteak mozte nitun gero saltzeko egurra, ta ola, ta baratza're bai ite nun an. Ta gustora.

E: Enekin justu garai ortan utzi zenula ta orreatik bezela.

A: Bai, orregati[k]an jun nitzan. Aber lenao ebai Batxillerra utzi nunean ta gurasoek ikusi[y]aten pixkat galdua ta justo aita zegon Sorian lanean, eta Soria biali z[i]aten nei ebai ola zeoze aprobetxatzearen nere bizitza. Eta an ebai egon nintzen baño oi illabete bat egin nun lana bastante prekario amasei urtekin, labanda landatzen eta gero ba trufak iteko arteak kimatzen eta ori pues, enun os... Azkenean bakarrikan eote nintzen ni landa eremu[a]n lanean, ta nazkan amasei urte, ta nee nagusiak eramate zian terreno batea goizeko zortzitan da e[g]un guztia bakarrikan pasatze nun. Eta ordun ba tzz, ta gero azkenian oso gutxi ko- pagatu zian.

E: A bai?

A: Oso gutxi, bai. Ps illabete osoa ein banun lana ordaindu z[i]zkian zazpireun euro ed'ola.

E: Ostias.

A: Oso gutxi. Baño bueno, nere lenengo esperientzia laborala.

E: Ya, pixkat kaxkarra o?

A: Bai, ba[...]ola ikaste'a azkenean ez? Gero denbora pasatze'anean oi beste prespektiba'atekin ikust'ezu ta esat'ezu *pu[e]s bitu, orrea ya enaiz itzuliko*.

E: Oixe, ya jute zea erabakitzen zer bai zer ez ta... [...]

A: Baibai. Eta oi 'sk' nei, pertsonalki arraroa ite zait nere burua zen parranda ezdeu gustoko. Os[e]a igual noizian-noizian bein baño oso konkretua izan bar da parranda ezdit balio ba Hernan[i]n asteburu[d]o dazkaun parrandak edo Sanjuanetan ere ba ezdet disfrutatzen kasike.

E: Ya, igual giroa ez? Esa'naet [...]

A: [...] Bai b[a]ño eske ezdet topatzen sekula nere tokia, parranda eremuan.

E: Ya. Ya, nei pasatu zi[tz]aiten oi nenbillenean ola garai batian... drogen beldurrakin da ola, oain e. Enintzan gustoa eozein tokitan ze esate nun bua ze gaixki, ze gaixki, ze gaixki... Nik ne buruai esate nion txarra zala giroa, gaixki zeola, ezdakizer. Eta azkenian enun disfrutatzen enulako, enintzalako juten uzten edo, fluitzen.

A: Bai, ni[k] a[d]ibiez alkolai ba ez diot bildurra baño errespetua badiot ta eske ezde[t] gustoko ezta're. Igual puntto bat artzea bai baño eske puntto oi galtze

bal[d]in baezu ya dena galdu'zu. O geyago e[d]o gutxigo balin bakazu gorputzean ya ezaude giroan.

E: Baibai. Bajoia edo geyegi pasa ez?

A: Bai, ta ni pasa askotan pasa naiz. Ta bajoyakin ebai ni askotan Hernanin lagunekin parrandan naon da ordubatetan edo ordu[b]itan etxea kolakau bat artu ta oyea. Ta oi zan netzako bua, mundiala.

E: [PARRA] E[a]rra oi e! [PARRA] Parrandako obena etxea bueltatzea ta kolakau'artzea.

A: Bai, beti Kolakau artze nun, galletekin. Joe, ze gox[u]a.

E: Bai, Maria galletekin eo?

A: E, zeudenak, zeudenak. Maria Dorada, Eroskikoak edo bai.

E: [...]

A: [... sa]tuta gañea nik entzun izan det ba etxea parrandatikan gus- gosiakin irixte b[a]lin bazea señaile ona dala, ezdezula geyegi edan edo ya jetxi zaizula.

E: Ya, oi da, etzaudela beteta ta ateata zure onetik.

A: Ze [g]oi, gose [g]abe iriste balin bazea ta tripa betiakin bezala gero igual barkoa etortze [z]aizu edo... pff [e]o submarinoa ta vamos nik komunian, komunzuloan lo artu izan det.

E: Bai edo?

A: [PARRA] Bai.

E: [PARRA] [ERORTZE ZARATA] Ala jun da! [ERORTZE ZARATA] Ala geyo jun da!

A: Baibai, komunzuloan lo artu izan det.

E: [...]

Kaleko neska

Kaleko_neska.wav

A: Ondo aitukoa ortik, ezta, bai? [...]

Elkarriketatzaila: Ba... oi, Sanjuanetan zu aurten atea zeala, ezta?

A: Bai, e, oi esate nizun moduan, ba bueno, gutxitan atea naiz, oporrak artu nitun, baño bueno, pare bat egunetan atea naiz bakarrik, eta e, giro ona, bueno, giro ona zeola ikusi'et, jende gutxiago, baño bueno, gutxi gorabera betiko... betiko martxa, beti jendea, aldaketa aundirik gabe. [...]

E: Ya, eta ze, gauian geyo atea zea, eo?

A: Bai, oi bai, justo aurten e lagun itzeite nun oain dela pare bat aste ta esate nion, jo, aprobetxattu naiko nuke aurten, e, oporra' azkatela, e, Sanjuanak geyago egunean zear bizitzeaz. Baño bakit e oain imposiblea dala, osea, nada, eta bai, gauez, ba oi, atxaldeko zazpitan atea, afaldu, pote bat, ezdakize, kontzertun bat txoznetan, eta dena gauez. Pena, baño, baño momentuz oaindik gauez bizitzen ai naiz, [...]

etorkizun batian ikusiko't.

E: oaindik gaztea' gea.

A: Bai, [...]

E: nik 'e berdiña, e, nei ebai emate'it pena batzutan esatea, jo, Buruaundik galduko'itut? Edo galduko'et ezdakize? Daola txaranga bat [...]

A: eozar gauza, edo edozein ezdakit e eginkizun plaza batian, o ezdakize, baño oi asko jota goizian o Sokamuturra, baño karo parrandatik zatozela, geyo, geyago ez.

E: Sokamuturran eon zea aurten?

A: Bai, gau, bueno goiz batian [...] nitzan, ni osa sokamuturzalia naiz, egiasan, asko gustatz' zait, ta pena emate'it aurten bakarrik bi sokamuturra eon dila, baño bai allatu nitzan, aber, egiasan bakar batea allatu nintzala eta bakarrik bi, bi zezentxo ikusi nitun ta martxa in nun, ze geoz ta geyo aspertze'it.

E: A bai? Zeba?

A: Bai, egiasan baietz, ezdakit. Iruitze zait, nei asko gustatz' zait bixitasuna, ez[t]a? Ba zezenak, aber, miña in gabe ta ezer pasa gabe baño ezdakit pixkat *a [...] oni jo in dio arrapatu in du* ezdakize, baño aurten iutze zaizkit, bueno iutze zaizkit zozada bat, ezdala ezer pasa ta esan nun bueno: martxa urrengo egunian bazkay'akatela eta eta fuera, baño bueno bai.

E: Jo, ba ni[k] ikusi nun golpe aundi bat bati [...]

A: Susto? Baño bueno, ezitzayon ezer pasa.

E: ezdakit, gero jun in giñan, beste gauz'atea.

A: Ze, aurten ez da alternatibaik eon, edo bai?

E: Ez, ez.

A: Esk... bale, eske itzeiten laun batzu[k]in esate nuA: eon al da? Ez, zuzenian txoznak itxi ezdakize ta

E: Bai nik juxtu alternatiba' nai nitun ola...

A: Ya, lengo eon izan tzian.

E: Bai, maño ustet nekatu ziala... antolatzeaz.

A: Ya, ombre, ya, oi egia da.

E: Baño kristona zan ze...

A: Ya, beste, beste auker'a[t] 'akazu, aizu, ez badezu Sokamuturrara jun nai, bai, edo dantza, jan, ezdakize, eozein, denadalak[o]a.

E: Baibai, eta gañea talde txikia izate zan, jende gutxio igual, ogei pertxona. Eta ogei pertsonakin gero antolatu *ba, oain noa jungo gea?* Eta taberna orta an daola jendia ezdakizer ta mañaneoa jarraitu. Baño aurten, orreatik ere

A: Ya... Zaila dia olako gauzak antolatzea e, osea, ni gauza oitan egia'san erriko zea guztitan, Akelarren olakoetan enaizela iñoiz sartu antolatzea. Geo parte artu bai, baño antolatu fff onartz'et lan aundiya [d]ala.

E: Eske lana bada, ta ekañ os[o]a eon b[e]ar zea [...]

A: Bai bai, dena prestatu bar dezu, ta gauza asko kordinatu jendi... Bai, baibai, bada... Baño bueno, aber, aber urrengo urtetan, gaz... jende gaztia oain, gazte-gaztiak, ni ya enaizela ain gaztia, animatze'yan pixkat, pixka[t] geyo.

E: Ba bai, eta... aber ze beste galdera iteizuten, ez[t]idut prestatuak, [...]

A: A bale, uste nun pixkat prestatua zenekala, a bueno

E: Ez, e, nayago'et natural izatea eta fluitzea bestela [...]

A: [...]

E: Dantzalditan ta erromeritan, eon zea?

A: Bai! Oain dela gutxi Aian eon nitzan, aibidez

E: Aian!

A: Bueno ez daka Sanjuanekin zerrikusirik baño Aian eote'a, nola izena du e... Azaroan asten da erromeri bat illabe... igandero e, Arra.. oain etzait e oain izena ateako. Oain dela pare bat aste eon nintzan nere aizpa, be[re] lagun batzukin eta da igandero b' oi, erromeya, Aian... Bueno aurrekun eon tzian Tapia ta Leturia, oain dela illabete Xabi Solano, jo ta kriston jendetza eon tzan.

E: Benetan? Ze wapo ez? Oi Aian?

A: Bai, baibai. Bai, asko gustatu zitzayan e, zea, Aiako auzo batian ola goikalden eta kriston jendetza, azkenekoa zan ze ya denboraldia itx'ite zan. Baño kriston jendetza bildu zan gañea eualdi ona ite zun, eta oso giro ona. Jende eldua, bueno baserritarra[k] ba oi betiko jendia, eta jende gazte asko ere bai, dantzan eta oso, oso giro politta. Pena eman tzian, bueno, nik baakizkit dantza batzuk ola baño bueno pixkat dantzatu genun ba oi zerbait artu, jende ezaguna, Astiarrako jendia, Urnietako jendia ta... oso ona. Normalian ez gea juten erromeita, oain au izandu'a azkeneko, zerbait ola entzun deuna ta jute geala baño normalian ez gea, ez gea oso erromeri zaliak. Gero errin ta ola Sanjuanetan eote'yanian batzutan ba animatze gea, oi gustatz' zaigu, baño... baño bueno bestela ez.

E: Baibai oi da, nik... nik emengotaz itzeite nun, ze enekin, baño lasai e, enun, enekin beste tokitan ite zianik.

A: Bai, baibai. Eske enai... etzait izena atea bear oain baño bai. Hernanin eondu'ya Sanjuanetan? Bai? Ez ditut ikusi.

E: Bai, bitan edo irutan. Oain dao len Laiotz zana.

A: A bale klaro, nola izena... e...?

E: Oain Itzal

A: A oi da, bale, Itzal, egia da. Baibai, Tilosetan eon tzian.

E: [...]

A: Gustatz' zaizu zui?

E: Olako giroan ola nei bai, bestela igual ez ainbeste.

A: Ya, ya, etxian aitzeko igual ez dezu Itzal jarriko. [...]

E: [...] Nei giroa gustatz' zait ta giro ona eukitze'ute, ze kanta guz[t]iak ezautze'ituzu normalian, jende guz[t]iak ezautze'itu ta azkenian.

A: Bai, giro politta sortzea, bai.

E: Eta zezentxikitan ibilia zea, txikitan, naiz-ta txikitan izan.

A: Zezentxikitan? Iñoiz ez, keba, keba, iñoiz. Asko oi, [...] esate nizuna gustatze zait baño egia'san errespetu aundia'yetela eta... gustatuko litzayake, lagun bati esate nion, jo, ola goiz batian Sokamuturrin, o pixkat ton... aer tontuana in baño... ez, beldurra emate'it. Atzo beitu mendira ju' nitzan, Adarra ju' nitzan atzo, Sanjuaneko zea zikinkei guzti' botatzea eta bapatian jeixten ai nitzan ta bei e zea bidian bei

batzuk. Bueno, beyak ola nei beida, bos' bei, bide bakarra ta ni *ai ama, ze it'et, ze it'et, ze it'et?* Ta ni baño, ola, osa beldurtua ta [...] nik eztakat idey[a]lik emen nola, nola... nola ibilli, ze erantzun, nola mugitu, bueno... Beldurtuta kriston zea mugimendua in tzuten ta ni *ai ama que me comen aquí, me-me-me-me me matan...* eta ez, osea beldurra'yet, gustatz' zaizkit baño urruti.

E: [...]

A: Oi da, urrutik eta seguru, ez ez. Etzaizkit...

E: Eta... beste galder'a[t] pentxatuko'[t] bitartian, [...]

A: A bale, denbora... ondo goaz? Bai, pixka' geyo.

E: [...]

A: Earki.

E: Yasta yastE: aurten erri bazkaria ez dala eon. Bueno, in dute ogeita bian, gaztetxekoek, bazkari bat. Ez zan erri bazkaria, etzan ogeita bostian ta etzan Tilotan, baño ez da eon.

A: Ez da eon eta oso gaixki iruitze zait, mmm, bueno, baño eon tzan larunbatian eon tzan preson bazkaria baño ez al tzan izan Ernaiek antolatua beste bat?

E: [...]

A: Batzuk zapi berdez zijoaztela bueno, kontua da, ta urtia' damakizkigu ya kontu onekin, ez dala bazkaririk egon baño bueno, betiko...

E: Nei pena emate'it.

A: Kriston pena! Kriston pena, eta askotan itzegin det lagunekin, esate nun, jo ba igual gu ez geala, ezdakik, iñungo taldetan ez gaudela sartutak, baaukazu ba zuk pentxamolde bat ta [...] izaera bat edo dana dalakua ezta? Baño ez gaudela iñungo taldetan sartuta, earra izango litzakela ba erriko gazteen artian sortu, asi, munitu iñungo mmm izaerarik edo iñungo e alderdi politikorik ez dakan bazkari bat egitea. Oi, Sanjuanetan, ogeita bin, edo dana dalakua, baño erriko gaztiak juntatu eta eta bazkari bat sortzeana ezta? Baño, oi betikoa, ez dala antolatzen... Jo baño eske ez dakit, mmm, nik ulertzen det ezda? Zuk e bueno ba pentsatzeko modu batzu' dazkazu baño ez det ulertzen ze-ze... ez dakit, zentzu batzutan edo egun batzutan edo ezdakik, ze-ze, arlo batzutan zergatik ezin dezun alde batera utzi.

E: Ya, beti eaman bar dezula etxaitasun oi gañean.

A: Bai, ezta? Eta eta, ai! Bale dena ain-ainbeste politizatzea eta [ain-]ezdakik, ez dakit, [pena-pena], egia'a pena emate'yala, ze bere garaian, joe ni gazteagoa nitzanian ba oi Tilosetan, alle'atze ziñan, danak kuadrillan bluxakin, ezdakize-bakize... Aurten ya da bakoitzak beria, gero juntatze zea ta 'ber, bueno b[a] ondo dago, gero elektrotzaranga ezdakize, baño joe...

E: Baño ez daka xarma berdiña ez.

A: Ez da, ez daka[u], ez da iguala. Eta ikust'ezu [...] beste erri batzutan, 'iez ezdakik Urnietan dakaten mmm ezdakik erri-kuadrilla oi, ez dakit, danak antolatzen dia, [zerbait-]gauzak ite'ituzte, ekintzak sortz'... ezdakik, baño Hernanin da... azken urte auetan banandu gea, bikoiztu gea ain-ain ezdakik, ain zorrotz, ain... ezdakik, pena emate'ya.

E: Ya, nei e bai. Gu taberna batea jun gea, bueno jatetxe batea. [...]

A: Oi da.

E: Eta ni' esat'et, aer...

A: k'ez da gauza iguala

E: ...ondo launekin nao, baño...

A: ya, baño ez

E: ...zeba, zeba ez ditugu artzen ta jun Tilota ta an jartze g[e]la, ta jendeak berdiña itea.

A: Orregatik! Osa zuk zure kuadrillakin igual larunbatero afaltzen dezu edo-edo nai dezunian juntatze zea zure kuadrillakin, baño kontua da kuadrillen eguna, ezta?

E: [...]

A: [...]

E: Bai, nei ere pena emate'it, ba in barko deu zeoze. [parra]

A: Ba bai. [parra] Animatu Andoni, zu gaztia zeala. Ba bai, ba bai, baño egia'san nik ez dakatela itxaropen aundiyik ezdakit.

E: Ez?

A: Ez. Gaur egungo gazteriangana, ta bueno ni oaindik gaztia naizela, ezdakit, iruitze zait naiko... aber badaudela talde batzuk ba bueno bere... gauzak itte'ituztela eta abar. Baño nik aibiez nere ingurun ikuste detena iruitze zait naiko pf motel, geldi['] gaudela e iñungo ekintzaile zea jarreraik gabe, ezdakit, ez dakat itxaropen aundiyik egia'san.

E: Ya, egia da e, oso, *ba berdin tzait*

A: Bai bai

E: ba pasibo [...]

A: *bueno ingo dute edo bueno edo ola datorkidala? A bueno igual tzait osea ni nerera, orkoa gaizki dago edo bueno, nik alde batea beitu eta ezerrez.*

E: YE:

A: Oso oso indibidualista, oso ezdakit.

E: Bai, baibai, guztiz.

A: Gure onura ta besteik ez, baño bueno, ikusikoa.

E: Ikusikoa.

A: Ikusikoa.

E: Bai.

A: Ordun... olaxe.

E: Bai. Ba ni[k] ust'et ya onekin.

A: Bai?

E: [A]maika miñutu, ondo.

A: Bai? Seguro?

E: Baibai.

II. eranskina: Arau morfosintaktiko-fonologikoak

Atal honetan azalduko ditugun arau guztiak morfosintaktikoki baldintzatuak daude, hau da, testuinguru jakin batzuetan besterik ez dira gertatzen, hitz gramatikal edo morfema jakin batzuekin, alegia. Bestelakoan, nomenklatura eta metodologia berbera erabili dugu arauok deskribatzeko.

II.1. Ezabaketa morfosintaktiko-fonologikoak

MSEZ1: aspektu burutugabeko /n/-aren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{c} +\textit{sudur} \\ \textit{KOR} \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / \#$$

Arau morfosintaktiko-fonologiko oso emankor hau aditzaren aspektu burutugabeko *-t(z)en* atzizkian aplikatzen da ondoren aditz laguntzaile bat edo partikula modal bat duenean —*ote* zalantzazkoa, *omen* ebidentziala, *al* galderazkoa, *baldin* baldintzazkoa—. Hona hemen adibide batzuk:

/a.ni.ma.ṭṣeŋ ɡɛ.a/	> /a.ni.ma.ṭṣɛ ʏɛ.a/
/ɛ.ʂa.ṭɛn ni.ʂu.na/	> /ɛ.ʂa.ṭɛ ni.ʂu.na/
/xuŋ.ṭa.ṭṣeŋ ʂɛ.a/	> /xuŋ.ṭa.ṭṣɛ ʂɛ.a/
/i.kuʂ.ṭɛn ɔɛ.ṭɛ.na/	> /i.kuʂ.ṭɛ ɔɛ.ṭɛ.na/

Adibideetan ikusten denez, atzizkiaren bukaerako sudurkari koroariak ezabatzen dira, beti ere ondoren aditz laguntzaile bat edo aipatutako partikula modalak dituenean. Bestela, ondoren aditz laguntzailerik edo partikularik ez dagoenean —perpaus bukaeran dagoenean edo beste partikularen bat duenean—, ez da ezabaketa gertatzen:

Esaldi bukaeran	Aditz laguntzailea duela ondoan
—Zertan ai ziñan ba? —Kozinatzen.	—Nei etzait bate gustatzen. —Ba nei gustatze zait.

13. taula: MSEZ1 araua argitzeko asmatutako elkarrizketa-adibideak, forma akastuna adierazita.

Hiztunetako batek, kaleko adineko gizonak hain zuzen, ekoitzitako esaldi batean ere alde hori ederki ikusi daiteke: /ni ɸɛn.ṭʂa.ṭṣɛ nun a.ɔ.ra.ṭṣeŋ aṭ nin.ṭʂa.la/

MSEZ2: /a/ determinatzailearen ezabaketa

$$\begin{bmatrix} +atzeko \\ +beheko \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \begin{bmatrix} \pm goiko \\ \pm atzeko \\ (-beheko) \end{bmatrix} - [+konts]$$

Nahiko ohikoa den arau honetan, morfema determinatzailea den /a/ ezabatzen da aurretik /a/ ez den beste edozein bokal³⁷ duenean eta ondoren kontsonante bat. Ikusi adibideak:

/a.kɛ̌.la.rɛ̌.an/	> /a.kɛ̌.la.rɛ̌n/
/ɛ̌.rɔ̌.mɛ̌.ri.a βat/	> /ɛ̌.rɔ̌.mɛ̌.ri βat/
/gǒi.kal.ɖɛ̌.an/	> /gǒi.kal.ɖɛ̌n/
/ɛ̌.ri.an/	> /ɛ̌.rin/
/ɔ̌.gěi.ta βi.an/	> /ɔ̌.gěi.ta βin/
/ǐn.gu.ru.an/	> /ǐn.gu.run/
/gɛ̌r.tu.kɔ̌.a.ɸɔ̌.a/	> /gɛ̌r.tu.kɔ̌.ɸɔ̌.a/
/na.fa.rɔ̌.an/	> /na.fa.rɔ̌n/
/sɛ̌.kre.tu.ak/	> /sɛ̌.kre.tuk/

MSEZ3: *bat* hitzeko [β]-ren ezabaketa

$$\begin{bmatrix} EZP \\ + jarraitu \\ + ahots \end{bmatrix} \rightarrow \emptyset / \begin{bmatrix} + atzeko \\ + beheko \end{bmatrix} - \begin{bmatrix} + atzeko \\ + beheko \end{bmatrix}$$

Hemen, *bat* determinatzaileko [β] ezabatzen da bi /a/-ren artean dagoenean.

/preʃ.pək.ti.βa βa.t̪̥.kin/ > /preʃ.pək.ti.βa.a.t̪̥.kin/
 /ʃu.lə βa.t̪̥.ti/ > /ʃu.lə.a.t̪̥.ti/³⁸
 /per.sə.na βat/ > /per.sə.na.at/

[illegible]

38 Adibide honen bukaeran MSEZ4 araua aplikatu da, baina ez dio mintzagai dugunari eragiten.

MSEZ4: /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, kontsonante aurrean)

$$\left[\begin{array}{l} DOR \\ -jarraitu \\ -ahots \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# [+konts]$$

Hainbat morfema gramatikalen bukaerako /k/ ezabatzen da hurrengo hitza kontsonantez hasten bada, hain zuzen, *-tik* atzizkiaren, absolutibo pluralaren eta ergatiboaren bukaerakoak —azken bi kasu horietan, morfema bera ezabatzen da—.

/g _{oi} .tik be.ra/	> /g _{oi} .ti be.ra/
/o _r .du.βi.ta.tik se _i .ta/	> /o _r .du.βi.ta.ti se _i .ta/
/gu _s .tik bo.ta.tse.a/	> /gu _s .ti bo.ta.tse.a/
/ur.ti.ak da.ma.kis.ki.yu/	> /ur.ti.a da.ma.kis.ki.yu/
/bi _s .kai.ta.rak di.a/	> /bi _s .kai.ta.ra di.a/
/se _i .la.jak si.an/	> /se _i .la.ja si.an/
/oi _k bi.jak/	> /oi _i bi.jak/
/u.mi.ak ci.ki.jak di.e.ni.an/	> /u.mi.a ci.ki.ja i.e.ni.an/ ³⁹
/ik ba al a.ki.nen/	> /i ba al a.ki.nen/
/guk ge.nun/	> /gu ge.nun/
/nik pen.tsa.tse/	> /ni pen.tsa.tse/

MSEZ4': /k/-ren ezabaketa (morfema gramatikalen bukaeran, bokal aurrean)

$$\left[\begin{array}{l} DOR \\ -jarraitu \\ -ahots \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# [-konts]$$

Aldaera honetako alde bakarra testuingurua da, honetan bokal baten aurrean gertatzen baita. Ez da inola ere ez hain emankorra, seguruena CV egituraren kontrakoa delako.

/su.lo a.te.ti i.u:/	> /su.lo a.te.ti i.u:/ ⁴⁰
/ber.s _o .la.jak ai.cu/	> /ber.s _o .la.ja ai.cu/
/bi _s .kai.ta.rak e.tor.tse.i.a/	> /bi _s .kai.ta.ra e.tor.tse.i.a/
/xen.di.ak a.pro.βe.tsa.tu/	> /xen.di.a a.pro.βe.tsa.tu/
/nik us.te/	> /ni us.te/
/nik e.sau.tse/	> /ni e.sau.tse/
/nik i.ku.si/	> /ni i.ku.si/

39 Azken hitzaren hasieran EZ1 aplikatu da uneko arauaren ostean.

40 Adibideko azken hitza onomatopeia bat da.

MSEZ5: /t/-ren ezabaketa (aditzeko morfema flexiboetan)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ -jarraitu \\ +hedatu \\ -laxaketa luzakorra \end{array} \right] \rightarrow \emptyset$$

Orainaldiko aditz laguntzaileko ergatiboko 3. pertsona pluraleko marka, /t/, ezabatu egiten da.

/s̥u.t̥ɛn/	> /s̥u.ɛn/ ⁴¹
/d̥u.t̥ɛ.nai/	> /d̥u.ɛ.nai/
/d̥u.t̥ɛ/	> /d̥u.ɛ/
/xar.t̥s̥ɛ.u.t̥ɛ.na/	> /xar.t̥s̥ɛ.u.ɛ.na/ ⁴²
/ɛu.ki.ko.u.t̥ɛ/	> /ɛu.ki.ko.u.ɛ/

Ikusi daitekeenez, /t/ ezabatuta ere /ɛ/ bokalak argi uzten du ergatibo plurala hirugarren pertsona pluralekoa dela. Absolutiboa plurala denean (objektu plurala), /st/ osorik ezabatzen da. Kasu honetan ere, /s/ ezabatu arren /i/-ak jada absolutibo plurala markatzen du:

/si.t̥u.s̥.t̥ɛn/	> /si.t̥u.ɛn/
/i.βil.t̥s̥ɛi.cu.s̥.t̥ɛ/	> /i.βil.t̥s̥ɛi.cu.ɛ/
/i.ɛɛi.cu.s̥.t̥ɛ/	> /i.ɛɛi.cu.ɛ/

MSEZ6: /t/-ren ezabaketa (hitz gramatikalen bukaeran)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ -jarraitu \\ +hedatu \\ -laxaketa luzakorra \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# [+kots]$$

Hitz gramatikalen bukaerako /t/ ezabatzen da hurrengo hitza kontsonantez hasten bada. Aurkitu ditugun adibideetan, *bat* hitzaren edo orainaldiko lehen pertsonako aditz-laguntzailearen bukaeran gertatu da:

41 Hernanin, estandarreko *zuen* /s̥un/ da beti, beraz ez da nahasgarria.

42 Azken bi adibideotan, EZ1 araua aplikatu da aditz laguntzaileko /d̥/ ezabatzeko.

/bat̪ ba.ʂan/ > /ba βa.ʂan/
 /e.ʂa.t̪e.it̪ k̪e/ > /e.ʂa.t̪e.i k̪e/⁴³
 /e.ʂa.u.t̪ʂet̪ x̪e.n̪.d̪i.a/ > /e.ʂa.u.t̪ʂe x̪e.n̪.d̪i.a/⁴⁴

MSEZ7: /ʂ/-ren ezabaketa (ez partikulan)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ + jarraitu \\ + hedatu \\ + karrankari \\ - ahots \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \# \left[\begin{array}{c} + sudur \\ KOR \end{array} \right]$$

ez hitzeko /ʂ/ ezabatzen da /n/-z hasten den aditz-laguntzaile baten aurretik. Grabazioetan baldintza morfosintaktiko honen ebidentzia positiboak bakarrik daude, baina guk dakigunez Hernanin ez da zuzena /n̪e.k̪ʂ na.βa.i.t̪u/ > /n̪e.k̪e na.βa.i.t̪u/ prozesua.

/eʂ naiʂ/ > /e.naiʂ/
 /eʂ nun/ > /e.nun/
 /eʂ ni.t̪ʂan/ > /e.ni.t̪ʂan/

MSEZ8: /n/-ren ezabaketa (aditz-trinko eta laguntzaileetan)

$$\left[\begin{array}{c} + sudur \\ KOR \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / _ \left[\begin{array}{c} KOR \\ - jarraitu \\ + hedatu \end{array} \right]$$

Aditz-trinko eta laguntzaileetan, /n/ ezabatu egiten da ondoren /t̪ʂ/ edo /d̪/ duenean. Adibide bakar hau jaso dugu (behin baino gehiagotan):

/nin.t̪ʂan/ > /ni.t̪ʂan/

Edonola, herrian honelakoak ere entzuten dira:

/ʂeʊ̯̃n.d̪ẽ̯n/ > /ʂeʊ̯̃.ð̪ẽ̯n/
 /geʊ̯̃n.d̪ẽ̯n/ > /geʊ̯̃.ð̪ẽ̯n/

43 Aditz laguntzailean EZ1 aplikatu da aurrena. Bestalde, /k̪e/ hori gaztelaniako esaldi baten hasiera da, kode-aldaketa.

44 Adibide honetan ere, hainbat arau aplikatu dira: MSEZ2, EZ1 eta EZ2a. Gero, mintzagai duguna.

II.2. Asimilazio morfosintaktiko-fonologikoak

MSAS1: /t/-ren asimilazioa (kontsonante ozen baten ostean)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ -jarraitu \\ -ahots \\ +hedatu \end{array} \right] \rightarrow [+ahots] / \left[\begin{array}{c} +konts \\ +ozen \end{array} \right] -$$

Arau honetan *ta* partikulako /t/-a [d] bihurtzen da aurretik duen kontsonante ozen⁴⁵ batekin asimilatuta. Hona hemen adibide batzuk:

/s̥un̥ ta/	> /s̥un̥ da/
/na.ɔn̥ ta/	> /na.ɔn̥ da/
/ni.jo.t̪en̥ ta/	> /ni.jo.t̪en̥ da/
/e.ʃan̥ ta/	> /e.ʃan̥ da/

MSAS1': /t/-ren asimilazioa (bokal baten ostean)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ -jarraitu \\ -ahots \\ +hedatu \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} +jarraitu \\ +ahots \end{array} \right] / [-konts] -$$

Arauaren aldaera honetan, *ta* partikulako /t/ fonemak aurretik bokal bat duenean, /t/-a ahostun bihurtzeaz gain, hurbilkari bihurtzen da —[ð]— bokal artean geratzen delako. Adibide batzuk:

/i.t̪e.a ta/	> /i.t̪e.a ða/
/i.ku.ʃi.ta ta/	> /i.ku.ʃi.ta ða/

⁴⁵ Asimilazioaren testuinguru gisa kontsonante ozenak ezartzea aproposena iruditu zaigu, MSAS1': /t/-ren asimilazioa (bokal baten ostean) aldaerari erreparatzen badiogu konturatuko garelako oso asimilazio antzekoa gertatzen dela bokalen ondoren, eta horiek ere ozenak dira. Gainera, bi prozesuotan ozentasuna agertzen denez, beste kontsonante ozen batzuekin ere asimilazio bera gerta litekeela ondoriozta daiteke, nahiz eta elkarrizketetan ez dugun halako adibiderik topatu.

MSAS2: /d/-ren ahoskabetzea (asimilazioa)

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ + jarraitu \\ + hedatu \\ + ahots \end{array} \right] \rightarrow \left[\begin{array}{c} + ahots \\ - jarraitu \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} - ahots \\ KOR \\ + jarraitu \\ + karrankari \\ + hedatu \end{array} \right] -$$

MSAS1 arauaren kontrako zentzuan, arau honetan aditz laguntzaile baten hasierako [ð]-a ahoskabe bihurtzen da —[t]— ez partikulako /s/-ren ondoren.

/eṣ.ð̥a.ka.su/ > /eṣ.ta.ka.su/
 /eṣ.ð̥a/ > /eṣ.ta/
 /eṣ.ð̥u/ > /eṣ.tu/
 /eṣ.ð̥en/ > /eṣ.ten/

II.3. Indartze morfosintaktiko-fonologikoak

MSIN1: /s/-ren indartzea

$$\left[\begin{array}{c} KOR \\ + jarraitu \\ + hedatu \\ + karrankari \\ - ahots \end{array} \right] \rightarrow [- jarraitu] / [+ ozen] -$$

Indartze honetan, /s/ frikaria afrikatu bihurtzen da —/t͡s/—, hau da, jarraitu izatetik ez-jarraitu izatera pasatzen da. Fonema ozen baten ondoren gertatzen, /s/-a hasieran duen hitza aditz laguntzaile bat denean bakarrik.

Hemen adibide batzuk:

/e.ɔn s̥i.an/ > /e.ɔn t͡si.an/
 /i.s̥an s̥i.an/ > /i.s̥an t͡si.an/
 /in s̥u.ɛn/ > /in t͡su.ɛn/
 /eṣ al s̥an/ > /eṣ al t͡san/
 /i.ɣ̞uəl s̥ait/ > /i.ɣ̞uəl t͡sait/

III. eranskina: Hedakuntza mugatuko arauak

Badaude arau sinkroniko batzuk hitz jakin batzuen gainean bakarrik gertatzen direnak, eta horrenbestez ezin direnak arau erabat fonologikotzat hartu. Gainera, hitz lexiko zein gramatikaletan gertatu daitezkeenez, ez ditugu morfosintaktiko-fonologikoetan sartu.

III.1. Hedakuntza mugatuko ezabaketak

HMEZ1: /d/-ren ezabaketa

$$\left[\begin{array}{l} KOR \\ +hedatu \\ -jarraitu \\ +ahots \end{array} \right] \rightarrow \emptyset / [+albokari] _$$

/bal.ɖin/⁴⁶ hitzean, /ɖ/-a ezabatu egiten da /l/-aren atzean. Ez da beti gertatzen, errazago ahoskatzeko egiten dela dirudi. Grabazioetan hiztun gazteengandik bakarrik jaso ditugu arauaren adibideak.

Jaso ez dugun arren, baliteke analogiaz /bal.ɖin.ʈsa/ hitz lexikoa /bal.in.ʈsa/ bihurtzea.

III.2. Hedakuntza mugatuko indartzeak

HMIN1: frikatuak afrikatzea (indartzea)

$$\left[\begin{array}{l} KOR \\ +jarraitu \\ +hedatu \\ +karrankari \\ -ahots \end{array} \right] \rightarrow [-jarraitu]$$

AH3 (25. orr.) arauaren kontrako arau honetan, /ʂ/ eta /ʃ/ frikariak afrikatu bihurtzen dira, hurrenez hurren /ʈʂ/ eta /ʃʂ/. Honetan ere, testuinguru zehatzik ez dago, aurrean hainbat soinu dituela gertatu daiteke-eta —/r/, /n/, bokal bat eta agian /l/—. Dena dela, arau honen hedapena mugatua da, hitz gutxi batzuetan bakarrik gertatu daitekeelako. Hona hemen grabazioetan jasotakoak:

⁴⁶ Hitza testuinguru isolatuan irudikatu dugu. Kasuan kasu, lehen eta azken kontsonanteen alofonoak egon litezke.

/ar.ɣi.ʂa.i.ɟa/ > /ar.ɣi.t͡ʂa.i.ɟa/
 /ɛ.xɛr.ʂi.ʂi.ɟo/ > /ɛ.xɛr.t͡ʂi.ʂi.ɟo/

Badago aipatzea merezi duen hitz bat arau hau betetzen duena, “Ereñozu” toponimoaren baliokide den “Iñatzu”, fonologikoki /i.ɲa.t͡ʂu/. Lehen bi silabetan gertatutako prozesuak alde batera utzita, ez baitzaizkio arauari egokitzen, /ʂ/ indartu eta /t͡ʂ/ bihurtu dela argi ikusi daiteke.

HMIN2: /r/→[ʁ] indartzea

$$\left[\begin{array}{l} KOR \\ -jarraitu \\ +hedatu \\ -tinko \end{array} \right] \rightarrow [+jarraitu] / [-konts] _$$

AH2 (25. orr.) arauaren kontrakoa den honetan, /r/ indartu eta [ʁ] bihurtzen da. Analogiaz, bokal baten ostean gertatzen dela ondorioztatu dugu, nahiz eta jasotako adibide guztiak /aj/ diptongoaren ostekoak izan diren.

/ai.ri.an/ > /ai.ʁi.an/
 /a.na.ɟai.ri/ > /a.na.ɟai.ʁi/
 /gu.ra.ʂo.ai.ri/ > /gu.ra.ʂo.ai.ʁi/
 /gau.ʂai.ri/ > /gau.ʂai.ʁi/